

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2021eko azaroak 19 - 1206. zenbakia



ORGANO SOINUAK BESTE DIMENTSIO BATERA



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Arregueta 27
20600
Eibar
943857244

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943857244





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgia,
Periodontozian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgia.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**Ezuste**

Ezusteaz hartu genuen aurreko ostiralean ...eta kitto!-ko alean argitaraturiko gutuna, astebete lehenago gure izenean idatzitakoari erantzunez. Ezusteaz gurekiko erabilitako tonuarengatik, baina baita guri leporatzen zizkigutelako guk esan ez genituenak ere.

Gure idatzian esaten genuen Osoko Bilkuran gure ahotsa altxatu genuela gogorazteko, gure iritzi, oinezkoen pasealekuak gure auzo eta inguruarentzat garrantzitsuak diren elementu urbanistikoak dakartzala, eta gaineratzen genuen ulertzen genuela kaltetutakoak haserre. Ondoren, Udalean ordezkaritza politikoa duen EAJ-PNV alderdiaren jarrera kritikatzeko genuen, ez baitugu ulertzen estalduraren proiektua egin ahal izateko beharrezko dirutza Europako fondoetatik Eibarrera ekarri duten alderdietako batek Gasteizen bai esatea, eta Osoko Bilkuran hitzez aurka dagoela adieraztea, baina bozketan parte hartu ez. Eta idatziaren amaieran genioenez, oinezkoen proiektu gatazkatsutik etor daitekeena albo batera lagata, Udalarri eskatzen geniola Barrena-Azitaín-Murrategi ingurua lehentasunezko eta premiazko interbentziarako gunetzat jo zezala.

Tonuari dagokionez, ez dugu uste deskalkifikazioak direnik modu egokiak eztabaidak egiteko; idatzia gure izenez sinatuta dago, Barrena-Azitaín-Murrategi auzokide gisa, eta gu ere gure kaleetan ibiltzen gara, beste auzokideekin batera, honetaz eta hartaz hitz eginez, entzunez eta gure iritziak emanez (aitortuko dizuegu, urteetan gure auzoak ahaztuta izan ondoren, ez direla gutxi eszeptizismoak jota aurkitzen diren auzokideak, soilik gure zonalderako akordioan agertzen diren konpromisoak betez desagertzen joango den eszeptizismoa). Eta amaitzeko, bai, ezaguna da gure ibilbide politikoa eta sindikala, agerian egiten duguna, eta gutako batek arestiko Osoko Bilkuran esplizituki agertu zuena.

Adeitasunez

Josean Urkia, Julian Diaz eta Jose Luis Gomez
(Barrena-Azitaín-Murrategiko auzokideak)

“Jakina da Deustuko Unibertsitateak eliteak sortu dituela, eta handik sortuak direla EAJren buru asko eta asko. Baina uste duguna baino gutxiago. Egon da momentu bat non EAEko hiriburuetako hiru alkateak ‘gureak’ izan diren, hiru herrialdeetako diputatu nagusiak ere ‘gureak’, eta EAEko lehendakaria ere, ‘gurea’. Bar-katu hitza txarto erabili badut, EHU ikasitakoak esan gura nuen. Eta une honetan, joan edozein enpresatara, galdetu ingeniariari non ikasi duen... Horrek aldaketa ekarriko du herri honetara. Zeren herri honetan ez dugu unibertsitate kulturarik izan inoiz. Salamancara joan, eta 800 urte dira sortu zutela. AEBetara joan eta, herri jaioberrian, jai eta hurrengo egunean hasi ziren unibertsitateak irekitzen: Harvard da adibide. Puritanoak Ingalaterratik ihes egin eta unibertsitatea muntatzea bat izan zen. Bazekiten ezer egin nahi izatekotan, unibertsitatea beharko zutela”.

IÑAKI GOIRIZELAIA, EHUko errektore-ohia

“Mongoliak hamar hildako zituen soilik aurtengo martxoan, eta biztanleen %10 zegoen txertatuta (dosi batekin). Masiboki txertatzen hasi ziren eta, zazpi hilabete geroago, %64 dira txertatuak eta 1.610 hilak. Antzeko zerbait gertatu da Vietnamen: 48 hildako zituen ekainean, %0,1 txertatuta zegoenean, eta lau hilabete geroago, %50ek dosi bat gutxienez hartu duenean, hilak 2.500 dira. Afrikan txertaketa maila txikia da, %4 inguru; baina hildakoak ere oso gutxi dira. Afrika Beltzean, milioi biztanleko: Etiopian, 55; Kenyan, 97; Ghanan, 38; Nigerian, 14... (datu ofizialak dira. Gogoratu Hego Euskal Herrian hilak milioiko 2.000 inguru direla, %80ko txertaketarekin). OME, G7 eta Europako buruzagiak esan eta esan ari dira hirugarren mundua txertatu behar dela. Eta lortuko dute, gure laguntza “solidarioarekin” justizia egiten bada, Hagako Auzitegiaren aurrean ikusi ditzakegu egunen batean”.

JUAN MARTIN ELEXPURU, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NOIZNAHI.- Edonoiz, edozein unetan. “Basarrittarrak, zelan noiznahi ez daben izaten holako aukerarik, pozik jotzen dabe kale alderutz”.

NOIZTIK NORA.- Denbora tarte baten hasiera eta amaiera adierazteko. “Noiztik nora iraungo daben kontratuak izentau biharra dogu, gero auzixetan ez ibiltzeko”.



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Maila handiko sukaldariak lehiatu ziren zapatuan

>>> Aurreko zapatuan egin zuten Ricardo Díez Varela "Ritxar" zenaren omenezko II. Zurrurutuna Txapelketa Untzagako jubilatuek. Oskar Treviño eta Mireia Alonso epaimahaikideei zaila egin zitzairen irabazleak aukeratzea eta, azkenean, lehen saria berdinduta geratu ziren Mila Iturricastillori eta Arrate Arriolak eta Berta Lamarianok osatutako bikoteari ematea erabaki zuten. Bigarren saria Lucia Alonsok eta Ascen Perezek jaso zuten eta hirugarrena Felix Cojok eta Antonio Herrerok. Azarorako pres-tatu duten egitarauarekin jarraituz, gaur 18:00etan moda-desfilea egingo dute. Eta bihar zentruko nagusiei omenaldia egingo diete, bazkari eta guzti. Horrez gain, 13:00etan zabalduko dute Einer Rodriguezen "Eibar lehen eta orain" argazki-erakusketa.

San Andres jaietan "neurri bereziak" hartu beharko direla aurreratu du Jon Iraola Eibarko alkateak

>>> Koronabirusaren bilakaerari aurre egiteko onartu berri duten aginduaren baitan, Eusko Jaurlaritzak udalen esku utzi du ekitaldi jendetsuak bertan behera uztea edo aldi baterako atzeratzeko erabakia. Orain, tokian tokiko udal gobernua Osasun Sailaren agindu berriaren xehetasunak aztertzen ari dira hurrengo egun edo asteetarako aurreikusitako ekitaldiekin zer egin erabakitzeko. Oraingo Udalak ez du horren inguruko jakinarazpenik eza-gutzera eman, baina Jon Iraola alkateak EITBko "Egun on Euskadi" saioan eguaztenean esan zuenez, jaiak ospatu ahal izatea da bere nahia, baina Eusko Jaurlaritzaren aginduaren xehetasunak irakurri eta aztertearen zain daude erabakiak hartzeko. "Seguraski San Andres jaietan beste neurri berezi batzuk hartu beharko ditugu", aurreratu du Iraolak.

Martitzenean eman zituen ezagutzera intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150 kasutik gorakoa duten



udalerriei zuzendutako neurri berriak Gotzone Sagardui Osasun sailburuak. Ekitaldi jendetsuak saihestera edo horiek modu seguruan egiteko neurriak indartzera bideratutako neurriak dira. Bertan behera utzi edo atzeratu egingo dira ekitaldiak, jaiak eta bestelakoak, udalek adierazten dutenean ezingo dituztela prebentzio neurriak bermatu, bereziki jana eta edana tartean daudenetan, horretarako masakarak kendu behar direlako. Neurriak indartu beharko dira bestelakoetan.

Elkarte gastronomikoak bisitatzeko bigarren saiakera

>>> Azaroaren 4an abiarazi zuen Mankomunitateak eskualdeko elkarte gastronomikoetan birziklapena areagotzeko egitasmoa. Eskualdeko 128 elkarten harremanetarako datuak bildu ostean, gutun bat bidali zitzairen guztiei, ingurumen hezitzaileen bisita jasoko zutela adierazteko. Ingurumen hezitzaileek elkarte guztiak bisitatu dituzte bi asteetan, baina ez dute lortu elkarte guztietako kideekin harremanetan jartzea. Hori horrela, helburua "ahalik eta herritar gehienengana iristea denez", birziklapena sustatzeko gizarteko esparru eta kolektibo guztietan, bigarren



saiakera bat egingo da eta berri bisitatuko dira harremanik izatea lortu ez duten eskualdeko elkarteak. Kideek mezua bidali dezakete adur@vermican.com helbidera edo 620 568 597 telefonora deitu.

Lau saio izango dituen enpresa ekintzaile programa abian

>>> Debegeak, Bic Gipuzkoak, Basque Precision Technology District-ek eta Spri Taldeak enpresa ekintzaile programa jarri dute martxan. Programa horren helburua enpresetan barne-ekintzailetzako ekimen bat ezartzeko esparru nagusiak kontuan hartuko dituen proiektu pilotu bati ekitea da. Programa lau saiotan banatzen da

eta Debegearen instalazioetan egingo dira, Iñaki Azpiatzuren eskutik. Barne-ekintzailetzako estrategia bat garatzeko asmoa duten edo garatzen ari diren enpresei, zuzendari nagusiei eta berrikuntzako zuzendari dago zuzenduta programa. Saiotik buruzko informazio guztia www.bptd.eus helbidean dago eskuagarri.



1971ko promozioiko ikasleak omendu ditu Armeria Elkarteak

>>> Armeria Eskolako Elkarteak 1971ko promozioiko ikasleei omenaldia egin zien aurreko barixakuan, elkartearen sorreraren 70. urteurrenaren aitziarekin. Ekitaldian, Carlos Abad Elkarteako presidentek Enrique Franco ikasle ohiari bera buru izan zuen ordezkari taldeak sasoi hartan

printzea zen Juan Carlos de Borbonekin bildu zeneko argazkia oparitu zion. Jarraian, ekitaldira gerturatu ziren ikasle ohiak Armeria Eskolako instalazioak bisitatu zituzten, eta interes handiarekin jarraitu zituzten azalpen guztiak. Izan ere, urte hauetan izugarri aldatu da Armeria Eskola.



Julen Bollain ekonomialariak bere liburua aurkeztuko du Portalean

>>> Julen Bollain ekonomialari eibartarrak "Renta básica: una herramienta de futuro" izenburuko lana aurkeztuko du abenduaren 2an, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Liburuan aipatzen denez, "hurrengo hamarkadan aldaketak izango dira eta orain arte ezagutu ez ditugun egoerei aurre egin beharko diegu, eta, gainera,

herentzia negargarri batekin: kalte ekonomikoak, ingurumenekoak eta 2008ko krisiaz geroztik bere baldintza materialen etengabeko okertzea jasan duen gehiengo soziala". Egilearen arabera, "liburuaren helburua gure eredu ekonomiko eta soziala birpentsatzea eta modernizatzea da". Eibarko Liburutegiak antolatu du.

Bakailaoaren inguruko lehiaketek beteko dute Errebal Plazia bihar

>>> Bakailaoarekin lotutako ekitaldiek beteko dute bihar goiza. Hasteko, Eskolarteko Bakailao Lehiaketaren 17. edizioa egingo da Errebal Plazan, 10:00etan hasita. Eibarko Udalak antolatutako ekitaldiak Bacalaos Alkorta, Aceites Urzante eta Inoxibar izango ditu laguntzaile eta izena ematen duten DBHko herriko ikasleentzako bikoteak arituko dira lehian, bakailaoa pil-pilean prestatzen.

Eta toki berean, baina 12:00etatik aurrera, jokatuko da Bacalaos Alkorta IV. Pintxo Lehiaketaren Show Cooking Fi-

nala, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako Pintxo Lehiaketan aurtengo irabazleekin. Ekitaldia jende guztiari zabalduko zaio, "pintxoak zelan lantzen dituzten ikusteko aukera izan dezaten". Epaimahaia Ramon Roteta ospetsua, Josema Azpeitia (Ondo Jan), Tiburcio Eskisabel (Tiburzio jatetxekoa), Iñigo Kortabitarte eta Arzak-en laborategiko Xabier Gutierrezek osatuko dute, antolatzaile lanetan ibili den Mireia Alonsoarekin batera. Nerea Ariznabarreta eibartarrak jardungo du ekitaldia dinamizatzen eta 14:30ak aldera amaituko da.



Atzerritartasunari buruzko zalantzak argitzeko hitzaldia

>>> Atzerritartasunari eta nazionalitate lortzeko prozedurari buruz hitzaldi irekia hartuko du Errebal Plazak, abenduaren 2an, 18:00etatik 20:00etara. Saioa atzerritarrei nahiz atzerriko pertsonen harremanetan (lana, familia,...) dauden eta informazioa behar duten beste hiritar batzuei zuzenduta dago. Hitzaldi horretan, abokatu batek azalduko ditu egoitza-baimenak, lan eta bizitze-baimenak, epe luzeko baimenak, baimen horien berritzeak, familia elkartaritze-baimenak, Europar Batasunaren atzerritartasun modu erkidegoa, eta espaniar



nazionalitatea eskuratzeko prozedurak. Sarrera doan izango da eta haurtzaindegi zerbitzua egongo da.



Herriko zaletuen omenaldi beroa jaso zuen Mikel Oyarzabalek

>>> Eibarko Errealzaleek harrera beroa egin zioten barixakuan Mikel Oyarzabal Realeko jokalaria eibartarrari Untzagan. Zaletuen txalo artean sartu zen plazan foballaria eta Errealzaleek oparia eman zioten: zaletu taldearen armariaren aldamenean “Gure kapitaina” zioen txapela jantzi zion Juanito Berazak jokalaria. Oyarzabalek, berriz, kamiseta oparitu zion. Jarraian, Kezka taldeko dantzari batek aureskua eskaini zion, Usartza Txistulari Taldekoek lagunduta.

Harrera egitera joandakoak agurtu ondoren, Eibarko Uda-

laren aitortza jasotzera sartu zen pleno aretora Oyarzabal, familiarekin, lagunekin eta kirol arloko ordezkarekin batera, eta bertan Udalaren aitortza gorena, “Txopitea eta Pakea” jaso zuen, Jon Iraola alkatearen eskutik.

Realeko jokalaria bere esker ona azaldu zien bertan bildutako guztiei, eta bereziki eskertu nahi izan zuen “bere moduko haurrek foballean aritzea eta, orohar, kirola egitea” posible egiten duten guztiei, gehienetan isilpean egiten duten lan horrek duen garrantzia azpimarratuz.

Gaur abiatuko da “Elikagaien Bilketa Handia” kanpaina

>>> Gaur hasiko da Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren 2021eko Elikagaien Bilketa Handia. Azaroaren 25era arteko iraupena izango duen kanpaina Aldi, Alcampo, BM, Carrefour, Día, El Corte Inglés, Eroski, Lidl, Macro, Mercadona, SuperAmara eta TodoTodo dendetakoek laguntzen dute. Osasun egoera dela eta, laguntza bonuetan soilik jasoko dute aurten ere. Denda askotan boluntarioak egongo dira, kanpainari buruzko informazioa emateko.



Espainiako artzapezpiku militar izendapena

>>> Juan Antonio Aznarezek Iruñeako eta Tuterako ordeko apezpiku izateari lagako dio, aita santuak Espainiako artzapezpiku militar izendatu duela. Horrela, Aznarezek Juan del Rioren lekukoa hartuko du. Aznarez 1961ko urtarrilaren 14an jaio zen Eibarren eta 13 urterekin Tuterara joan zen bi-



zitzera. Iruñean eliza ikasketak egin zituen eta 1990ko urriaren 27an apaiz ordenatu zuten.

Batzar irekia eguaztenean

>>> Debabarreneko Stop Desahucios-ek batzar irekia deitu du eguaztenerako, 19:00etan Portalean. Herriarrei joateko deia egin dute taldetik, asmoa arduradun berriak aurkitzea da eta.



DONATO AMILLATEGI LARRAÑAGA

1. URTEURRENA (2020-XI-18)

“Ahazten ez dena inoiz ez da hilko”

ASKO MAITE ZAITUGU -ETXEKOAK-





Errebal Plaza eraikinaren obra zibilak 7.649.257 euroko kostua izan du

>>> Errebal Plaza eraikitzeko obrek 7.649.257 euroko kostua ekarri diote Eibarko Udalarari, "alegia, proiektua 2015ean lizitaziora atera zeneko prezioa (8.276.543 euro) baino nabarmen txikiagoa", Alkatetzatik jakinarazi dutenez. Azaldu-takoari jarraituta, "7.649.257 euro horiek Dragadosi ordaindutako zenbatekoan eta Iza-Campezo ABEEak egindako obren azken ziurtagirian dute jatorria, bai eta lanak egin bitartean Udalak jaso dituen eta ondoren zehazten diren diru-sarreretan ere".

Jon Iraola alkatearen hitzetan, "Errebal Plazaren obrek ez dute batere gainkosturik izan, are gehiago, hasierako lizitazioaren aurrekontuan 8.270.000 eurotik gorakoa izan zela kontuan hartuta". Azpimarratu dutenez, "2015eko maiatzeko Udaltzatzen, aho

batez onartu zen Errebal Plaza eraikinaren obra-aurrekontua, 8.276.543 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), eta zenbateko horretan atera zen lizitaziora. Azkenean, lanak Dragadosi adjudikatu zitzaizkion, 5.000.000 euro inguruko zenbatekoarekin (BEZa barne). Kontuan izanik kontratua bertan behera laga behar izan zela eta enpresak ez zituela lan guztiak egin, Udalak egindako lanengatik azkenean ordaindu zuen kopurua 2.243.203 eurokoa izan zen".

Errebal Bizirik elkarteak bestelako iritzia dauka eta garden-tasun falta egotzi dio gobernu taldeari. Beraien kalkuluen arabera, 8.499.707 euroko kostua izango lukete lanek, "gobernu taldeak esandakoa baino 1.659.589 euro gehiago". Ildo berean, EAJ-PNV-k "kontuak argi azaltzeko" eskatu du.



Gizarte kotizazioak 0,6 puntu handitzeko akordioa lortu dute

>>> Pentsioen erreformaren bigarren atalaren negoziazioaren atarian, Debabarreneko pentsionistek horren kontra protestatzeko manifestazioa egin zuten zapatu eguerdian. Pentsioen erreformarako negoziatorako bilera amaituta, Espainiako Gobernuak eta CCOO eta UGT sindikatuek akordioa lortu zuten astelehenean gizarte kotizazioak 0,6 puntu handitze-

ko eta hortik lortutako diruarekin pentsioen erreserba funtsa betetzeko. CEOE enpresari- elkarrekin ez zuen sinatu nahi izan eta Confedebaskek erabakia babestu egin du. ELA eta LAB sindikatuek, bestalde, ondo irizten diote kotizazioak handitzeari, baina, hala ere, pentsio duinak bermatzeko hori baino zerbait gehiago egin beharko dela uste dute.

Bilgunea ostegunero zabalduko dute

>>> Bilgunea (Bista Eder, 2) ostegunero zabalduko dute, 18:00etatik 19:30era. Herri-tarrek ateak zabalik izango dituzte "Ekialdea biziberritzeko akordioari buruzko informazioa jasotzeko, gainean ditugun 2022ko aurrekontuetarako proposamenak egiteko edo bestelako iradokizunetarako".



JOSE RAMON MITXELENA MAKAZAGA

1. URTEURRENA: 2020-XI-17



"ZURE irrifarrak iraungo du
GURE bizitzak eta bihotzak argitzen.
BETI GURE BIHOTZEAN"

ETXEKOAK



“Giputxanekoa”; frontoi, zinema eta jatetxe

Eibarko “Giputxaneko” frontoia sei kuadroa zen eta bi pisu zituen. Trinkete estilokoa. Bertan entrenatzen zuen Migelek hasiera batean. Bospasei lagunek entrenatzen zuten bertan eta haien arteko kontuak gogoratzen ditu.



Isabel Vidarteren bildumako argazki honetan Astelena frontoia estali aurretik, 1904. urtean nolakoa zen ikusten da.



**Migel Gallastegi
Ariznabarreta**
(1918 – 2019)

Eibarko Asoliartza baserrian jaio zen, Amaña auzoan. Bere garaiko ume gehienak bezala, txiki-txikitatik hasi zen pilotan jokatzeko, baina berehala ikusi zen profesional izateko gaitasun apartak zituela. 14-15 urte zituela Isasi kaleko “Giputxanekua” pilotalekuan hasi zen jokatzeko eta entrenatzeko; berehala, Astelenan ere hasi zen entrenatzen. Hemezortzi urte zituela debutatu zuen 1936. urtean, baina gerrak harrapatu zuen. Gerra amaituta eta sasoi batean, 1940. eta 1950. hamarkadetan nagusi izan zen Euskal Herri osoan. Buruz buruko hiru txapelketa irabazi zituen (1948, 1950 eta 1951) eta dozenaka partida jokatu (eta irabazi) zituen bikoteen eta hirukoteen aurka.

Migel Gallastegiri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Zu ume-umetan hasi gehixao Kiputxanian] Bai, Kiputxanian esan leike lelentik hola frontoi-ko zerian ekin nintzana. [Kontauko dostazu zelakua zan Kiputxaneko frontoia?]”

Kiputxaneko frontoia, eukazen, pentsatzen jata eukazela sei kuadro. Ta eukan, osea frontoia hamen da, aurretik bigarren pisua zan, handik botatzen eban pelikulia. Baiña frontoi politta. Estilo trinkete zan, e. Eskuman, ezkerrian ez zeukan, ezkerria pareta ondo eukan, baiña eskuman eukan barrera sartzeko bentana bat, eta han sartzen bazenduan tanto zan. Baiña politta, frontoi politta; ikasteko frontoi ona. Ha orduan denporan euazen pelotarixak edo fubolistak asko jokatzeko eban, Robertok eta Mugerzak-eta haraxe faten zian. Pelotan baiña gogor jokatzeko zan. Ha zan gaiñera frontoia, zinia ta restaurana. Restaurana, zinia ta frontoia. Jose, bueno, zan... [Jose zeukan izena?] Jose, bai, Elorza. [Eta hori zure gazte denporan ein zeban frontoia?] Bai, nere gazte denporan ein eban, bai. Nik orduan eukiko nittuan zortzi urte edo hola; Obria neuk ikusi neban”.



Untzagako kiosko berria (1935)

Orfeoiak inauguratu zuen musika kioskoa 1935eko San Juan bezperan. Eskuinaldean taberna zegoen. Entseguak egiteko lokalari Txotxa esaten zioten eta sukaldia zeukatenez, oso ondo pasatzen zuten. Udalak Orfeoiari lagatako lokala zen.

Eibarko musika kiosko berria, 1932. urtean. Aurretik egon zena Beasainen dago gaur egun, 1929. urtean Eibarko Udalak Beasaingokoari saldu zion eta. INDALECIO OJANGUREN.




Antonio Sarasua Gisasola
(1912 – 2002)

Eibarren jaio zen, Estaziño kalean, 1912an. Gurasoak eta aitxita-amamak ere eibartarrak zituen. Administrazio ikasketak egin zituen eta Aurrera lantegiko bulegoetan egin zuen beharra. Herriko hainbat ekintza antolatzen eta gidatzen jardun zuen bizitza osoan (Club Ciclistako presidente izan zen 1950eko hamarkadan eta baita Eibar Kirol Elkarteko idazkari ere). Musika bere zaletasun nagusia. Juan Bautista Gisasola musikari eta konposatzailearen iloba zen eta musikarako zaletasuna txiki-txikitatik jaso zuen etxean. Piano-jole, organista eta hainbat korutako zuzendari izan zen. Lehen soldatarekin argazki-kamera bat erosi zuen; gerra ostean baita Super 8 kamera bat ere.

Antonio Sarasuari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Orfeoiakin guk pasatzen genduazen... Kioskua geuk inaugurau genduan! Hogeitamabostian inaugurau zan ha, San Juan bisperan. Genkaguzen, kioskuari begira, eskumatara eguan barra, ta billarra, ta jokuak eta hori. Ta ezkerretara eguan ensaiuen saloia, piano eta guzti. Ta gero, komunak be baeguazen han. Ba komunen beste aldiak gekagun beste lokal bat, deitzen zetsagun Txotxa. Ta Txotxan sukaldia eguan. Ta organizatzen genduazen batzuek...Badiola, ta Primi, Lazpita ta... Sekulakuak organizatzen genduazen! Ondo pasatzen genduan”.





Eibarko Udalak, ...eta kitto! Euskara Elkarateak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak abiatu duten kanpainaren aurkezpenean herriko merkataritza batzuk ere egon ziren. SILBIA

Euskaraz eskatu eta eskaini... herriko saltokietan ere

Merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eguaztenean, azaroaren 17an. "Merkataritzan Euskaraz" izeneko kanpainaren helburua tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatzea eta merkataritza nahiz bezero euskaldunak aktibatzea da eta, asmo horrekin bat eginik, Eibarren ere "ESKATU ESKAINI EUSKARAZ. BETIKOA. GERTUKOA" kanpaina ipini da martxan.

Eibarko Udalak, ...eta kitto! Euskara Elkarateak eta Eibar Merkataritza Gune Ire-

kiak (EMGI) bat egin dute Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko eta merkataritza zein bezeroak aktibatzeke abiatutako kanpainarekin. Errebal Plazan egindako herri mailako aurkezpenean, Udaleko, ...eta kitto! Euskara Elkarateko eta EMGI-ko ordezkariekin batera, inguruko hainbat merkataririk hartu zuten parte.

Kanpaina aste honetan, azaroaren 17an hasi da eta, horren harira, telebistan spotak, irratian iragarkiak eta Eibarko kaleetan banderolak ikusi ahal izango dira.



Jenaro Zabala Berriozabal

II. urteurrena: 2019/11/18

"Zure maitasuna betiko gure bihotzean"

- MAITE ZAITUGU, JENARO -

ETXEKOEK



Ekimen hau hainbat eragilerekin elkarlanean bideratu da, eta Eibarrek bezala EAEko udalerrri askok egin dute bat proiektuarekin.

Kanpainaren arduradunen berbetan, "lehen hitza euskaraz egin dezaketen merkataria eta bezeroak dira protagonista kanpaina honetan eta, bere bitartez, erosketak herrian, Eibarren bertan egitea eta, gainera, euskaraz egitea bultzatu nahi da".

Gure denda eta tabernetan sarritan entzuten dugu "Jarri betikoa" esaldia. Konfiantzazko harremana dagoela adierazten digu esamolde horrek, gertukoa, betikoa... Kanpaina sustatu dutenen arabera, "horrela, euskara egunerokotasunean erabiltzeko hizkuntza gisa eta konfiantza sortzeko bide gisa aurkezten du kanpainak, 'Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz' goiburuari jarraituta. Mezu hori da, hain zuzen ere, kanpainaren ardatza".

Merkatarien parte hartzea

Kanpaina hau hainbat eragileren artean sustatutakoa izan arren, "ez luke zentzurik izango merkatarien parte hartzerik gabe", nabarmendu dutenez. Hori dela eta, Eibarko merkatariegana jo dute, "kanpaina



Tokiko merkataritzan euskararen erabilera areagotzeko asmoz abiatu dute kanpaina

honen zabalkundearen eta gure herriko denda eta tabernetan euskararen erabilera areagotzen lagun gaitzaten". Eskaera horrekin eta kanpainari buruzko informazioarekin gutuna bidali diete merkatariei, aldezturik beraien babesarengatik eskerrak ematen.

Laster hasiko dira kanpainaren zabalkundea egiteko materiala banatzen eta merkatariei establezimenduan kartelak

jartzeko gonbitea egingo diete. Horrekin batera, "kanpainaren mezuarekin bat egin eta bezeroekin, ahal den guztietan, euskaraz egin dezatela" ere eskatuko diete.

Eguaztenaz geroztik kanpainari buruzko informazioa, spota eta kartela Eusko Jaurlaritzaren webgunean ikus daitezke, <https://merkataritzaneuskaraz.eus-en> eta sare sozialetan ere jarrai daiteke kanpaina.

Kanpaina arrakastatsua izango dela, "eta guztion artean euskararen erabilera areagotzeko pausoak ematen jarraituko dugula" uste dute arduradunek.

Gertuko merkataritza eta euskarari laguntzeko lanean

Eibarren, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta EMGIk, Udalaren babesarekin, kanpaina bereziak egin dituzte azken urteetan, bai euskara sustatzeko, bai bertako eta gertuko merkataritza bultzatzeko ere. Aurretik martxan ipini dituzten #EibarrenBadakagu eta www.erosieibarren.eus moduko egitasmoei "Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz" kanpaina batuko zaie orain. ■

688 62 76 89
ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
943 20 09 18
Urkizu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI Grupo Asima
FUNERARIA MUGICA Funeraria Funeuskadi

TANATORIO EIBAR
TANATORIO CREMATORIO FLEGGIEBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao



Primeran ospatu zuten Gaztañerre Ipuruan egindako kantu kalejiran

Iazko etena eta gero, aurten berriz ere Eibarko ohitura zaharri heldu diote Eibarko AEK euskaltegikoek eta giro ederrean ospatu zuten astelehenean Gaztañerre, Ipuruia inguruan egindako kantu kalejiran. Paloma tabernan elkartu ziren jaia ospatzera animatu ziren guztiak eta, bertan ahotsa berotzeko lehen ariketak egin eta jarraian, Terraza tabernaraino joan ziren kalejiran, trikitilarien atzetik abesten, bertan afari-merienda egiteko. Aurten belaunaldi ezberdinek egin dute bat ospakizunean eta, aspaldiko partez, Eibarko Kantuzaleak taldekoak kalean kantatzen ikusteko aukera egon zen. Eibarren oso errotuta dagoen jaia da Gaztañerre eta lagunak elkarrekin afaltzeko ohitura handia egon da betidanik. Menuan, berriz, marraskiloak eta gaztainak, bi horiek dira afariko "izarrak".

Kalejira eta ondra jana nola ospatu zuten **BIDEOAN** ikusi nahi baduzue, eskaneatu QR kodea.



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 89
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA



ITURGINAK

Miguel Azpiri
ITURGINA

- Konponketak
eta ordetsaketak
ITURGINAZAN
- Konponketak
eta intebideak
KALEFAKZIOAN

BEREHALAKO
ZERBITZUA
ematen da

635 13 38 41

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
IBARREN, Urteku 20an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK



PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 - ELGORRIALDE

605 713 168

943 744 019

KRISTALAK



ERREKATXU, 3

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystalerascha.com

eta faxa: 943 203 903

ERAKUSKETA

Arikiteko Zabian

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabiloia

Tfnoa: 943-120108

www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel: 943 201 922

www.bagliettoebar.com
bagliettoebar@kaiaso.com

ELEKTRIZITATEA



TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAN

610 532 922 www.thelecer.com

Tel. 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



Sistema erasotzailearen aurrean, autodefentsa feminista

Indarkeria Matxisten Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a. Horrela, Matraka! neska* gazte taldeak eta Nalua talde feministak manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Untzagatik hasita. Talde biek kaleak hartzeko deia egiten dute, “erasotzen gaituen sistemaren aurrean autodefentsa feminista izango delako gure tresna”, diotenez.

Matraka! neska* gazteen taldeko Naroa Kareaga eta Naia Martinek, gaur egun bizi dugun egoera kontuan hartuta, ezinbestekoa ikusten dute azaroaren 25eko deiarri erantzutea. “Sistema heteropatriarkal eta kapitalistak norbanako batzuen alde egiten du eta beste batzuk bazterrean lagatzen eta zapaltzen ditu. Guri, neska* gazteei, zapalduen posizio hori egotzi digute”, esan digutenez.

Neska* gazteen taldeak prozesu politiko eta historiko moduan ulertzen du arazo hau. “Politikoa da, neska edo emakumea izatea ez dugulako genitalekin edo zentzu biologikoan ulertzen, subjektu hau eraikia izan dela uste dugu. Hau da, emakumea ez da jaiotzen, jaiotzen den momentutik sortzen eta eraikitzen den subjektua da. Aluarekin jaiotzen garen momentutik hainbat jarrera eta patroiz egotzen dizkigute, eta bizitzako esparru guztietan zapalkuntzak jasaten ditugu, emakume izatea egotzi digute-

lako bakarrik”, Matraka!-koen berbetan. “Eta bestetik, prozesu historikoa da, testuingurua aldatu arren zapalduen patroia errepikatu egin delako”, gehitzen dute.

Zapalkuntza historikoa izan arren, gaur egungo testuinguruak ez du hobekuntzarako seinalerik ematen. Izan ere, Matraka!-ren ustez pandemiak ohiko egoera aldatu du eta beharrezkoa da emakumeen kontrako erasoei behatzea, areagotu egin direla uste dutelako. “Gure aurkako eraso zuzenak jasotzen ditugu sare sozialetan eta aisialdi edo juerga espazioetan”, diotenez. “Batetik, konfinamenduan sare sozialen erabilera izugarri hazi da eta baita horren bitartez gure aurka ematen diren erasoak ere. Gainera, edertasun kanonek indar handia dute eta itogarriak dira guretzat, izugarritzko presioa jasaten dugulako kanonetara hurbiltzeko. Eta bestetik, pandemiarekin aisialdi gune berriak sortu dira eta, lehen zeudenak (tabernak, diskotekak...) maskulinizatu-

ta bazeuden, espazio berrietan neska* gazteok oraindik eta espazio gutxiago izan dugu.

Aurpegi ezberdineko erasoak

Matraka!-ren ustez, azken urteotan feminismoak hartutako indarrarekin eta instituzioetan, espazio publikoetan eta gizartearen kontzientzian eragiteko izan duen gaitasunaren ondorioz, “eraso matxistak gero eta gehiago kondentatzen dituen gizartea bihurtzen ari gara”. Baina zein eraso identifikatzen dituzte? “Mugimendu feminista jakitun da eraso matxistek aurpegi desberdinak dituztela. Emakume baten eraiketa biolentzia bezala identifikatzen dugun moduan, ‘piropoak’, gure hitzak (kezkak, proposamenak) kontuan ez hartzea edo gureganako irainak ere eraso matxistak dira”, diote. “Eraso hauek modu sistematikoan ematen dira, sistema baten ondorio direlako”.

Taldeak dioenez zapalkuntza hauek oso dimentsio handia dute eta Eibarren ere espazio askotan ematen dira. “Adibi-

dez, kirolean. Argia da gizonen eta emakumeen taldeen arteko ezberdintasuna, ez dituztelako ez protagonismo ez baldintza berdinak”, diote.

Horren aurrean, Matraka!-k autodefentsa feministarekin erantzungo du: “Kontzientziak mugitzen, espazio seguruak sortzen, jakintza kolektibizatzen eta ahalduentzeko espazioak sortzen jarraituko dugu, Eibarren eta gizartean eraldaketa bat nahi dugulako”.

Matzak ehuntzen

Andretxeak ere egitarau berezia prestatu du azaroaren 25erako. 10:00etan “Indarkeria Matxisten Aurkako matzak ehuntzen” ekintza egingo dute Untzagan eta, 20:00etan indarkeria matxistaren aurkako elkarretaraztea toki berean.

Bestetik, bihar ‘Autodefentsa feminista’ tailerra egingo da Portalean; eta hilaren 26an Susanna Minguellek ‘Palabras dislocadas’ emanaldi musikala eskainiko du 18:30ean Portalean. ■

Jesus M^a Agirrek dena daki Helmholtz CV Church organoaren inguruan. Elorza eta Ibazeta anaiek 60. hamarkadan lortutakoarekin lilurata, eurengandik zuzenean jaso du organoekiko maitasuna. “Eibarren armak, bizikletak, josteko makinak... egin ditugu, baina arlo kulturalen Helmholtza da sorkuntza bakarra”, diosku ‘altxorraren zaindariak’, Aitor Alberdi lagunak esaten dion bezala.

Sorkuntza handi hau, gainera, ingurukoekin elkarlanean egin zuten hiru lagunek. “Armeria Eskolako belaunaldi bereko hiru lagun ziren Elorza eta Ibazeta anaiek”, hasten da kontatzen Agirre, “demaseko kointzidentzia da hirurek bat egitea, bakoitza bere arloan maisua zelako: elektronika, elektrizitatea eta mekanika”.

Helmholtza asmatu baino lehen, hirukoteak beste organo mota bat sortu zuen 1957an. “Oso berezia zen, ez du zerikusirik gaur egun darabiltzagun organoekin”, Agirrerren ustez. Kasu horretan ez zuten eredurik jarraitu, euren asmakizuna izan zen goitik behera. Bi eredu egin zituzten, Unda Maris eta Stella Maris, eta gaur egun bat dago martxan, Ermuko San Lorentzo ermitan.

Organo horiek egin ondoren, hirukoteak bere lana hobetu behar zuela pentsatu zuen. “Kasualitatez, Astelena frontoian areto-dantza egon zen eta organoak nola funtzionatzen zuten ikustera joan zen hirukotea. Hammond organoa erabili zuten emanaldi horretan eta Juanito Urteaga izan zen interpretea”, azaldu digu adituak. Hirukotea soinuarekin harrিতa geratu zen. “Horrelako zerbait egiten dugu edo itxi egin beharko dugu”, esan omen zuten Agirrek dioenez.

Hammond organoa buruan
Esan eta egin. Elorzak eta Ibazetarrak Ermura joan ziren Teodoro Zuazua parrokoari Hammond organoa lagatzea eskatzeko. Apaizak onartu egin

Soinu magikoak herriko asmamenetik

Jose Luis Elorza Txintxurretak eta Jose eta Jesus Ibazeta Arratek Hammond CV organo baten erreplika zehatza sortu zuten 1961. urtean, Helmholtz Church izenekoa. “Inoiz egin den kopiari zehatzena”, Hammondekoen arabera. Eibartarren lorpena demasa izan zen (jarraian kontatuko dugun istorioaren arabera) eta, sorkuntzaren 60. urteurrenean, San Andres egunean musikari handiak bilduko dira Coliseoan, Eibarren sortutako ‘Hammond soinuaren’ magia noraino heldu daitekeen erakusteko.



eta horren truke eibartarrek sortutako organo bat laga zioten. Hammonda Errekaxuko 16. zenbakian zuten tailer txiki batera eraman zuten eta organoa goitik behera desmuntatu zuten. “Desmuntatu baino lehen, sorgailua ikusi eta pentsatu zuten ezin izango zutela

horrelakorik egin. Erloju baten antzeko egitura zuen, Laurens Hammond erlojugilea zelako”, kontatu digu Agirrek.

Eibartarrak, oster, ez ziren kikildu eta, poliki-poliki, gauza guztiak ondo apuntatu eta buruan ondo gordez, organoa desmuntatu zuten. “Papera,

lapitza eta borragoma besterik ez zuten erabili lan horretarako”, diosku adituak. “Gainera, beste arazo bat izan zuten, bertan agertzen ziren neurriak hazbetetan agertzen zirelako. Ondorioz, neurri guztiak berriz kalkulatu behar izan zituzten sistema metrikora egokitzeke”, gehitzen du. Hammondak 3.500 pieza ditu eta 750 pieza elkarrengandik ezberdinak dira. Pentsa nolako lana egin behar izan zuten ordenagailurik edo horrelakorik gabe.

Organoa desmuntatu ahala, eta jasotako oharrekin, organoaren planoak egin ahal izan zituzten, behar zituzten piezak zehatzen... Gero, organo berria sortzeko, eurek eraiki behar izan zuten guztia zerotik, apuntatutako neurriekin. Lan hori egiteko ingurukoengana jo zuten eta, horrela, Helmholtzaren sorkuntza elkarlanean egin zuten herriko eta ingurukoetako beste lagun batzuekin. “Engranajeak behar bazituzten, engranajeak egiten zituenarengana joan ziren. Kasu horretan, Ermuko Jose Ormaetxea Ureretak egin zizkien. Txapak Txontako Txurrukak egin zizkien, egurra Elgoibarko Florentino Etxebarriaren bitartez lortu zuten, teklatuak egiteko metal preziatuak Madrilgo militar bati eskupekoa emanez lortu zuten, besteak beste”, azaldu digu adituak.

Hirukoteak aurre egin zieten parean jartzen zitzaizkien zailtasun ia guztiei, baina harri koxkor handi batekin egin zuten topo: teklatura. “Donostiko Javier Mujika organeroak ere Hammondarken kopia egin nahi zuen eta esan zien ez zutela inoiz lortuko Hammondarken teklatura kopiatzea. Berak ezin zuen, behintzat”, diosku Agirrek. Eibartarrek Debara jo zuten, Industrias Reinerrera, eta asmatu zuten. “Hori bai, Helmholtzaren teklak Hammondarkenak baino pixka bat argiagoak dira. Forma, neurriak eta abar, oster, berdin berdinak”, adituaren ustez.



Jesus Mari Agirrerren lokalean hiru Helmholtz organo daude, argazkian Hammondarekin badago ere. EKHI BELAR

Bakarrak munduan

Helmholtz organoa bertako industriaren lorpen handienetakoa da, eta ez da harrokeria kontua, Hammond enpresakoak zur eta lur geratu baitziren organoarekin. Izan ere, eibartarrak Helmholtza sortzeko lanetan zeuden bitartean, Turinen, Herbehereetan eta Belgikan, besteak beste, Hammondaren kopiak egiten saiatzen ari ziren. “Turinen FIAT enpresaren fabrika ari ziren lanean, Hammond baimenarekin, planoekin eta demaseko baliabideekin, baina ez eurek ez inork ez zuen lortu eibartarren zehaztasun maila”, baieztatzen du Agirrek. “Horrelako zerbait egiten duten munduko lehen pertsonak za-

“Diziplina ezberdinetako artistek hartuko dute parte San Andres eguneko ikuskizunean”

rete. Zorionak”, esan zion Herbert Menyema Hammondek diseinu zuzendariak hirukote eibartarrari. Menyema maila goreneko profesionala zen eta, Agirrerren berbetan, “berak esandakoak Jainkoaren hitzak

ziren Chicagon”. Eibarrera egin zuen bisitan, ez zitzaion asko axola izan organoa kanpotik nola ikusten zen, barruak ukitu nahi zituen bakarrik. Ezin zuen sinetsi ikusten eta ukitzen zuena”, diosku Agirrek.

Bera ez zen izan, oster, Hammond lehen ordezkaria Eibarren. Lehen organoaren lanak nahiko aurreratuta zituztenean, Jose Ibazetak eskutitza bidali zuen Chicagora, Hammond egoitzara, lanaren berri emateko. “Euren gainean barre egingo zutela uste zuten Elorzak eta Jesusek”, dio Agirrek, baina aste batzuetara argentinarrak gazte bat agertu zen Errekatzu inguruan eta, organo soinuak deituta, tailer txikian sartu zen. “Charles Wilson zen,

Hammond organoen frogagilea, eta kasualitatez handik pasatzen zen turista zela esan zien. Organoa jotzen hasi zen eta tailerreko langileek inoiz entzun gabeko soinuak entzun zituzten”, azaltzen digu adituak.

Wilsonen bisitaren ondoren, Stanley Sorensen etorri zen Errekatzura, Laurens Hammond lagun mina eta Hammond konpainiaren zuzendari orokorra. Eibartarrak bere bila joan ziren Bilbora eta harrera prestatu zioten. Ingelesez egiten zuenez, Fernando Martinek egin zituen itzultzaile lanak. “Planoak nondik atera dituzte”, galde zuen Sorensenek. “Hemendik”, erantzun zion Josek, bere burua seinalatuz.



MARIAN ABASCAL RUIZ

4. URTEURRENA: 2017-XI-21

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

ETXekoak



Sorensen zur eta lur geratu zen eta zoriondu egin zituen. Handik aste gutxitara etorriko zen lehen aipatu dugun Menyema jauna eta organo bat erosi zuen. “Beraz, Chicagon Helmholtz bat dago”, diote Alberdik eta Agirrek.

Helmholtz VS Hammond

Helmholtzaren historia ezagututa, Jesus M^a Agirrek eta Aitor Alberdik “bere tokia eman” nahi izan diote herrian organo eibartarrari. “Organoak historia indartsua du atzetik eta Jesus Marik, altxor honen zaindari moduan, beti faltan bota izan du herri mailan lorpen horren goraipamena egitea”, diosku Alberdik. “Helmholtzak herrian izan duen errekonozimendua motz gelditu izan da beti”, gehitzen du Agirrek. Horregatik, Helmholtzari merezi duen tokia emateko, ikuskizun berezia antolatu dute San Andres egunerako. “Egun berezia da eibartarrentzat eta, gainera, herriaren sorreraren 675. urteurrena ospatzen da eta Helmholtzaren sorreraren 60.a aldi berean”, diote biek.

1997. urteaz geroztik 16 kontzertu antolatu ditu Agirrek Helmholtz organoarekin, baina oraingoan beste pauso bat eman nahi izan du Alberdirekin batera. “Helmholtzak dantzak, beste musika-tresnak, ahotsak, abesbatzak eta beste zenbait diziplinei laguntzeko duen ahalmena erakutsi nahi dugu”, diosku Agirrek. “Organoa kanpotik ikusgarria da, baina martxan jarri eta ondo dakien batek jo arte ezin da imajinatu organoak duen boterea”, Alberdiren ustez.



Botere hori, edo ‘Hammond soinua’ askok dioten bezala, marka horretako organoek bakarrik dute. “Hammond soinua’ 50. hamarkadaren hasieran sortu zuten, eskaner bibratoa txertatzea lortu zutenean. Horrekin, sorgailuak zuen kolorearekin batera, ‘Hammond soinua’ lortu zuten”, azaldu digu Agirrek. “Beti imitatua, baina inoiz ez lortua”, zioen sasoi hartako lelo batek. Eibartarrak iritsi ziren arte.

Elorza eta Ibazetarren lorpena agerian lagatzeko asmoz,

Hammond CV eta Helmholtz CV Church organoekin ikuskizuna eskainiko dute hilaren 30ean, publikoak ikusi dezan herrian sortutako makinak Chicagokoaren ezaugarri berak dituela. “Organo biak aurrez aurre jarriko ditugu eta jendeak ez du jakingo zein organo den marka batekoa edo zein bestekoa”, Agirreraren ustez.

Organoek eskaintzen duten aukera eta abaniko zabalaren erakusle da ikuskizunean parte hartuko dutenen zerrenda: Kezka Dantza Taldea, Julian

Maeso, Olatz Salvador, MZM (Maite Arroitauregi ‘Mursiego’, Zalao Urain eta Miren Narbaiza ‘Mice’), Quico Puges, Iraide Ansorena, Elkano Browning Cream, Juan Luis Agirre eta Mikel Erentxun. “Artista bakoitzak 12 minutuko ikuskizuna eskainiko du eta guretzat sorpresa izango da, ez dugulako aurretik jakin nahi izan zer prestatu duten. Baldintza bakarra da organoa presenten egotea”, Alberdik dioenez. “Parte-hartzaileek demaseko gogoia erakutsi dute ikuskizunean parte hartzeko, liluratuta daudelako organo honen historiarekin eta soinuarekin”, gehitzen du.

Coliseoko ikuskizuna horrekin egingo dute: “Lehenengo saioan Kezkako bikote bi egongo dira Quico Puges, Iraide Ansorena eta Juan Luis Agirrerekin. Gero, oinarritzko talde bat egongo da, Mikel Azpiroz organista eta pianista handia burudun Elkano Browning Cream taldea. Jesus Marik zaintzen du Azpiroren organoa eta harremana dute aspalditik. Ondoren, Julian Maeso organista bikaina egongo da eta, momentu batean, Elkanorekin batera izango da eszenatoki gainean eta bakoitzak organo bat erabiliko du. Jarraian, Olatz Salvador arituko da, Mikel Erentxun gero eta MZM azkenik. Diziplina eta estilo ezberdinak landuko ditugu (rocka, bluesa, dantza...), ahalik eta publiko gehiagora iristeko”, diosku Alberdik. “Gainera, ikuskizunaren hasieran ikus-entzunezko bat jarriko dugu, Helmholtzaren historia laburra aipatu eta testuingurua ezartzeko”.

MIREN ETXANIZ ELORZA

3. URTEURRENA: 2018-11-18

“Amama, ez doguz ahazten zurekin pasautako momentuak”

ESTAZIÑO KALEKO TXIKIXEN PARTEZ
(Ariane, Iban, Ainhoa, Iker, Jone, Noa eta Luka)





Nagore Fernandez

NAGORE FERNANDEZ

Berandu eta garesti

“Ez dira betiko garai onenak, azken finean gizaki hutsak gara. Barearen ostean dator ekaitza...” Eta ekaitzaren ostean, horniduren mundu mailako arazoa etorri da.

Sektore eta maila guztietan igartzen hasia da produktuen falta, hornidura epeen luzapen edo ziurtasun eza, prezioen garestitzea. Lanean duela hilabeteak hasi zitzaigun komeria: Materialak lortu ezinda, aurrekontuak baliogabeztatuta, bezero eta hornitzaileekin borrokan, azalpen kontsolagarriak entzun eta eman nahian. Eta gremio txikiekin gertatu zaigu, baina ez pentsa, baita IKEA moduko munstro erraldoekin ere! Dena berandu eta dena garesti.

Ziur zuek ere nabaritu duzuela; ez dut uste inor enteratu gabe dagoenik, honezkerok. Eta orain, gabonak gerturatzen direla eta, jostailu edo ginebrarik gabe geratuko garen beldurra zabaldu da, ene! Segi ba azkar xoxak gastatzera, eskuhutsik geratu baino lehen!

“Eta orain, gabonak gerturatzen direla eta, jostailu edo ginebrarik gabe geratuko garen beldurra zabaldu da, ene!”

Bitartean Glasgowko bilerari buruzko titularrak entzun eta, antza, ez gara gai zientziak aurreikusten duen etorkizun katastrofikoari aurre egingo dioten neurriekin ganorazko bide-orri bat marraztu eta akordiora heltzeko.

Eta orduan burura datokit, berriz: Dena berandu eta dena garesti. Atzerapenak eta prezioak nabarmenki hazi baitira, bai. Baina planeta salbatzeko ere berandu xamar gabiltza ba, eta horren prezioa ezingo dugu ordaindu, opariekin bezala lehenbailehen eta zuhur jokatzeko ez badugu behintzat. Baina, urruti ikusten dugu eta, kantuak dioten moduan gizaki hutsak garenez, zer egingo dugu ba guk, koitaduok?

Ba kutsadura murrizteko gertuko dendetan erosi, eta gintonica eskuan, familia edo lagun artean gaiari buruz solastu dezakegu, gutxienez. Ea behingoz konturatzen garen bestela kantuarekin segiko dugula eta *“udaberri berririk ez (dela egongo) guretzat”*.



Ainhoa Aldazabal

AINHOA ALDZABAL

Gautxoriak gauari

Eguzkia gorde eta eguzkia esnatu bitarteko orduak dira nire espazio gogokoenak. Izarrak etxeko leihotik baino edozein herriko plazatik ikusi ahal izatea maite dut. Eta maite dut ordu txikitan ilargia agurtu, keinu egin eta bere argitan dantza egitea. Maite dut astean zeharreko gaueko isiltasuna, lasaitasuna, bakea. Eta baita barixaku eta zapatuetako zurrunbiloa, zarata, kantuak ere. Edo jaietako musika, lurrak nola bibratzen

duen jendeak elkarrekin dantza egiten dugunean, elkarrekin egotearen plazer hutsez. Maite dut ordu txikiak arte kalean egotea. Maite ditut eguzkia erretiratu osteko elkarriketak, luzeak, amaigabeak, infinituak eta isiltasunez beteak. Maite dut domeketan nola zinematik atera eta asteburuari minutuak gehitu nahian gutxitzen den jendea kalean, ikusitakoari buruzko hitz aspertu interesgarriak egiten.

Maite dut kalean hotz eta ilun denean etxeko argi txikia piztu eta mantapean

berotan sartzea. Kanpoan dena arrotz denean erraietako sua hauspotu eta gauak esaten didana aditzea. Maite dut gauak nola usaintzen duen. Eta zer ikusten dudana eguneko argia itzaltzen denean. Gauean denbora nola pasatzen den maite dut. Astiro, poliki, geldo, mantso. Maite dut besteak lo dardenean ni esna geratzea. Edo oheratzen naizen lagunekin puzkerren zaratak egitera jolastea. Eta zentzurik gabe barre egitea. Zentzurik gabe barre egitea maite dut. Ilunetan gertatzen diren elkarriketa sakonak maite ditut, argirik gabe baina bestearen begiak ikusteko besteko aukera dagoenean. Eta gauetan irakurtzen diren liburuak maite ditut. Loari orduak lapurtuta irakurtzen diren horiek.

“Maite dut kalean hotz eta ilun denean etxeko argi txikia piztu eta mantapean berotan sartzea”



HAIZEA LASAGABASTER

JOKIN HAZAS

Ez da magia; herri-lana da

Jaixak Herrixak Herrixandako jai euskaldun, herrikoi, parte-hartzaile eta feministaren aldeko kolektiboa da. Urtero-urtero, Eibarko jaietan (sanjuanetan, sanandresetan eta arrateetan) egitarau parte-hartzaileak antolatzen dituzte, egun herriko jaietan eskaintzen den ereduaren alternatiba baita JHH. Datozen lerrootan kolektiboko bi kideren testigantzak jasotzeko aukera izango dugu.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: MALEN ILLARRAMENDI
BIDEOA: YANIRE SAGREDO

Zein helbururekin sortu zen kolektiboa? Zerk bultzatzen zaituzte herriko jaien alde lanean aritzera?

HAIZEA: Eibarko herriari jai alternatibo eta independenteak eskaintzeko helburuarekin sortu zen *Jaixak* duela urte dexente, eta gaur egun xedeak bera izaten jarraitzen du. Herriak soilik jakin dezake zer gustatzen zaion eta zer behar duen, eta horri guztiari erantzuten saiatzen da *Jaixak*.

JOKIN: Bi arrazoiengatik egiten dugu herriko jaien alde lan: arrazoi pertsonalengatik (kanpotik ikusten den jai-giro atsegina, kideen arteko harreman ona...) eta arrazoi ideologikoengatik (jai-eredu alternatibo, feminista, herrikoi eta parte-hartzaileak).

Zenbat kidek diharduzue lanean momentu honetan aktiboki? Nola antolatzen zarete lantalde moduan?

HAIZEA: Momentu honetan sanandresak antolatzen 10-15 lagunek dihardugu lanean. Kideen disonibilitatearen arabera funtzionatzen dugu, *Jaixak* ez delako militantzia handiko taldea; bakoitzak ahal duenean bere ekarpena egiten du, eta kitto. Egia da San Andres jaietan jende gutxiago batzen gara lantaldeetan beste jaiekin alderatuta, sanjuanetan edo arrateetan, esaterako.

JOKIN: Hainbat lantalde sortzen ditugu gure artean egoki jarduteko. Batetik, komunikazio lantaldea, edukiak sortzeko eta sareetan zabaltzeko ardurarekin (Instagramen, Facebo-



"Benetan sinisten dut Udalaren helburua eta gurea berbera dela: herriari nahi eta behar duena ematea. Horregatik uste dut denborarekin elkar ulertuko dugula"

ken eta Twitterren). Bestetik, burokraziaren taldearen zeregina da Udalarekin akordioetara iristea. Gainera, txosnak kudeatzen dituen taldea ere badaukagu, eta horrek muntaia, produktuen eskaera eta txanden kudeaketa hartzen ditu bere gain. Ahaztu gabe kontzertuen, jokoan zein afarien lantaldeak ere sortu ohi ditugula jaiaren eta beharren arabera. Whatsapp talde orokorra daukagu *Jaixakeko* kide guztiok, baina, horrez gain, lantalde bakoitzak bere talde txikia sortzen du egitekoak banatze aldera. Lehen ohitura geneukan barixakuero Txaltxa Zelaiko eszenatokian biltzeko, baina ikusita guztion ordutegiek bat egitea nahiko zaila egiten zitzaigula, gehiengoa libre gauden egunetan biltzen gara astean zehar. Bileran horietan ekipo bakoitzak bere eginkizuna zein egoeratan dagoen azaltzen die besteei eta, inork laguntza behar izanez gero, elkarri babesa ematen diogu.

Herritarren babesa daukan kolektiboa zaretela esango zenukete? Zergatik?

HAIZEA: Bai, noski. Aitortzekoa da gure aurretik *Jaixaken* lanean aritu diren kideek asko landutako gaia dela hauxe, eta merezita lortu dutela herriaren babesa eta parte-hartzea. Egungo kideen aldetik eskertzekoa da benetan aurrekoek egindako lana.

Eta instituzio publikoena? Zergatik?

JOKIN: Ez dugu babesik sentitu instituzio publikoen aldetik. Aitzitik, horren beharrean, oztupoak jarri dizkigute. Momentu honetan traba handiak jartzen ari dira sanandresetako txosna aurrera eramateko, kontzertuak jartzeko, ordutegiak zehazteko... Egon dira urte hobeak eta, pandemia aurretik ez zegoenez aitzakiarik, ezin zituzten nahi beste murrizketa jarri; beraz, ez genituen hainbeste tira-bira izaten. Baina, orain egoera bestelakoa da eta Udalarekin ez gara akordioetara iristen.

HAIZEA: Udala Udala da eta Jaixak Jaixak da, gutziz jaiotza ezberdina daukagun bi erakunde gara, eta elkarren arteko gorabeherak izan ditugu beti. Hala ere, uste dut duela urte batzuk askoz ere prestutasun handiagoa erakutsi zuela Udalak elkarlanean aritzeko gaur egun erakusten ari denarekin alderatu-

ta. Pandemia garaian talde moduan ahuldu egin gara eta gehiago kostatu zaigu berriro ere martxan jartzea, eta pentsatu nahi dugu Udalari gauza bera gertatu zaiola eta oraindik ez duela ohiko indarra ekimenak antolatzeko. Nik pertsonalki daukadan sentsazioa da *Jaixakek* berreskuratu duela dagoeneko galdutako indarra eta Udalak ez, eta aliatua ez den erakunde batek berak antolatu ezin duena antolatzen ikusteak nolabait min egiten diola Udalari. Hala ere, nik benetan sinisten dut Udalaren helburua eta gurea berbera direla: herriari nahi eta behar duena ematea. Horregatik uste dut denborarekin elkar ulertuko dugula.

Badira bi urte pandemia iritsi zela eta herriko jaiak bertan behera geratu zirela. Nola bizi izan dituzue azken hilabete hauek?

JOKIN: Pandemiak ezinbestean eragin digu, bai pertsonalki eta baita kolektibo moduan ere. Hasiera batean, nahiz eta etxealdian egon eta egoera kaxkarra izan, gure arteko batasuna kristona izan zen: bideodeiak, leiho eta balkoietan bozgoragailuak... Baina, denbora pasa ahala, ohartu gara kide gutxiago garela, antolaketa urriagoa daukagula eta zailtasun handiagoa daukagula. Pandemiak, beste talde askori gertatu zaion bezala, *Jaixakeko* elkartearen asko ahuldu du.

Sanandresak ate joka ditugu dagoeneko. Zer dauka *Jaixak Herrixak Herri-xandakok* esku artean?

HAIZEA: Dagoeneko argitaratu dugu egitarau osoa. Hilaren 26an, barixakua, arratsaldeko 18:00etan egingo dugu txosnaren irekiera; azaroaren 27rako, zapatua, sekulakoa prestatu dugu (Elektrokela Elektrotzaranga, McOnak, Tribade eta DJ KLIK); astelehenean, bezpera egunean, afari herrikoia egingo da karropoteoarekin eta Parrapas Erromeria Taldeak girotuta; eta San Andres egunean, martitzenean, trikigiroa eskainiko dugu pintxo eta zozketa artean.

JOKIN: Afarirako tiketak lau tabernatan daude salgai, eta agortu arte erosi ahalko dira: Guridin, Buenos Airesen, Deporren eta Ez Dok Zai Zoin. Soldatapeko langileek 10 euroan eskuratu dezakete tiketa eta lansaririk gabeko beharginek zein ikasleek 8 euroan. Aukera beganoa ere eskaintzen dugu; beraz, zerrendan apuntatzean jakinarazi besterik ez dago.

"Karropoteoan eta elektrotzarangan bakoitzak bere edalontzia ekartzea gomendatzen dugu, zerbitzariari eta tabernariari lana murrizteko"





* Elkarrizketa eta bideoa azaroaren 12an egin ziren, eta argitaratu diren momentuan (azaroak 18) Udalak oraindik ez du erabakirik hartu San Andres jaietan indarrean egongo diren neurri berriei buruz.

Hainbeste denbora etxean igaro ondoren, benetan jai bereziak izango dira aurtengoak, ezta? Zein aurreikuspen daukazue?

HAIZEA: Iritsi zaigu Eibartik kanpoko jendea ere hurbildu egingo dela jaiak ospatzera. Lehengo jai-giro herrikoia berreskuratzeko premia daukagu guztiok, gorputzak eskatu egiten digu-eta. Gogoia badago, zalantzarik gabe.

Herritarrei mezuren bat bidali nahiko zeniekete?

HAIZEA: Txosnako txandetan izena ematera animatu nahi dugu jendea. Badakigu batzuetan kosta egiten dela, baina benetan oso giro ederra sortzen da lanean; aukera ezin hobea da jende berria ezagutzeko. Ez da magia; herri-lana da, eta ezin da jairik antolatatu jendea parte hartzera animatzen ez bada.

JOKIN: Horrez gain, rifak ditugu salgai, bi lagunentzako afari edo bazkarirako sariarekin Casino tanernan. Zozketa San Andres egunean bertan egingo da 14:30ean, eta sare sozialetan zein ...eta kitto!-n jakinaraziko dugu zenbaki irabazlea. Gogorarazi nahi dugu bai karropoteoan, eta, baita elektrotzarangan ere, nor bere edalontzia ekartzea gomendatzen dugula, zerbitzarietara eta tabernarietara lana murrizteko asmoz.

Bideoa ikusi nahi?

Elkarrizketa honen BIDEOA
YouTube*n* ikusi daiteke.



Bost milioi euroko irabazien kontuak aurkeztuko ditu Eibar FT-k

>>> Amaia Gorostiza presidentek eta Ander Ulazia kontseilari-ordezkariek abenduaren 15ean egingo den Akzionisten Batzar Orokorreko deialdian aurkeztu zuten, klubak ondo eutsi die pandemiak sortutako kalteei eta talde nagusiak maila galtzearen ondorioei, eta azke-

nean bost milioi euroko irabaziaz aurkeztuko dituzte. Azken denboraldiko sarrerak 58 milioi eurokoak izan dira, aurrekoan baino 11 gehiago, eta jokalariek saltzeagatik klubak beste 20 milioi jaso ditu. Azkenik, goiko mailan taldeak egindako zazpi denboralditan irabaziaz 66

milioi eurotara iritsi dira. 21-22 denboraldiari begira egindako aurrekontuetan, sarrerak iazkoaren erdian geratuko dira (62 milioitik 30era jaitsiko dira-eta); hala ere, klubean bi milioi euroko irabazietara helduko direla espero dute. Bestalde, plan-tilan gastatutakoa 20 milioi eu-

rotara heltzen da, eta horietako 14 soldatei dagozkie.

Aipatutako Batzar Orokorra abenduaren 15ean (eguztana) egingo da, 19:00etan hasita, Coliseoan. Oraingoan presentzialki egiteko itzaropena dute klubean, iazkoa telematikoki egin behar izan zuten-eta.



Martitzenean udaletxean egin zuten aurkezpen ekitaldia.

Nazioarteko eskubaloiaz gozatzeko aukera gurean

>>> Ipurua kiroldegia Basque Country International Women's Cup torneo hartuko du hilaren 27an, Brasil eta Argentina mundialisten parte-hartzearekin. Zapatu horretan, 15:30ean Euskadiko selekzioak Brasilgoari egingo dio aurre eta, 17:45etik aurrera, Finlandia eta Argentina

ariruko dira, nor baino nor. Nazioarteko torneo horretan Luxenburgok ere hartuko du parte eta, Eibarkoarekin batera, Berango eta Leioa ere partiduetako egoitzak izango dira. Sarrerak 15 eurotan ipiniko dira salgai, eta 10 euroko bereziak ere izango dira eskubaloi klubentzat.

Asier Cuevas herri-lasterketa egingo da bihar

>>> Iaz jokatu ezin izan zen proba herriko kaleak abiada berezian girtuko ditu 17:00etatik aurrera, bere 8. edizioa betetzearekin batera. Klub Depor-

tiboaren atletismo batzordeak antolatutako herri-lasterketak zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea izango du, "Depor aurretik irten eta atletismoko jai

bihurtzeko asmoz egindako antxintxiketaldiarekin". Izenemateak 12 euro balio du eta zapatu arte egin daiteke www.saillkapenak.com web orrian.



Errugbilari gazteen lehenengo kontzentrazioa egin zen Unben

>>> Aurreko zapatuan probintziako 30 jokalaritik gora bildu ziren Eibarren, Gipuzkoako Federazioak abiatutako programari jarraituz. 14, 16 eta 18 urte azpiko emakumezkoen kontzentrazio horrek Eibar Rugby Taldeko Raquel Riera eta Cristina Guntinen eta Bera Berako Leire Bayon eta Arrate Otañoren aginduetara jardun zuen: "Horrela, jokalariek beraz proiektuarekin lehenengo kontaktua izan dute, kohesiozko entrenamendu dinamiko batean". Gainera, Iberdrola Li-

gako Eibar-Olimpico partidua ikusteko aukera ere izan zuten.

Intentsitate altuko ikuskizuna zirrargarria ere bihurtu zen Unben, partidu ezin borrokatuagoarekin. Maika Brustek eibartarrendako lehenengo entsegua lortu ondoren, madrildarrek jakin izan zuten berehala erantzuten. 5-6ko hori neurrak amaitzeko zazpi minuturen faltan aldatu zen, Anne Fernandez de Corresen entseguarekin eta Lucia Moyaren transformazioarekin, azkenean 12-6koa ezartzeko markagailuan. Etzi A Co-



ruñako CRAT taldea bisitatuko dute eibartarrek, 12:00etan hasiko den norgehiagokan.

Ohorezko B Mailako Eibar Rugby ere garaile izan zen azken jardunaldian, intentsitate handiko partiduan Uribealdeari 3-10 irabazita. Eibartarrek denboraldiko lehen garaipena lortzetik zetozen eta lehen mi-

nutuetan entsegua lortu zuen, Nicolas Braim-en bitartez. Eta lehen zatia amaitu zen emaitzarekin bukatu zen ere partidua, bigarrenaren ez zelako entsegurik izan. Hurrengo aurkaria Santanderreko Independiente liderra izango da; aurkari zaila izango dute Ibarbururen Kantabriako lurretan.

96 eibartar izan ziren parte hartzen Behobia-Donostia probaren 56. edizioan

>>> Domeka goizean jokatu-tako Behobia-Donostia herri-lasterketan gure herriko 96 atletek osatu zuten maratoi erdiko distantzia, euretako 23 emakumezkoak (hau da, %25aren bueltan). Guztira 20.270 lasterketarik amaitu zuten proba eta izena ematerakoan izandako jaitziera, %25 ingurukoa, nabaritu zen eibartarren parte-hartze mailan ere. Horrela, 2019ko aurreko edizioan gure herriko 120 atletek amaitu bazuten proba, oraingoan 96 izan ziren.

Probaren irabazlea Eneko Agirrezabal segurarra izan zen,

ordubete, minutu bat eta 41 segundoko denborarekin. Jesus Angel Olmosek (3 segundotara) eta Alejandro Gonzalezek (6ra) osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan Nuria Lugueros Espainiako txapelduna nagusitu zen (1:12:43), Elena Silvestre eta Mireia Guarner lasterkarien aurretik.

Eibartarrei dagokienez, Pello Berrizbeitia izan zen gure ordezkari onena gizonetzkoetan (22. postuan amaitu zuen) eta Oihane Sarasketa emakumezkoetan (1403. postuan). Hona hemen eibartarren sailkapena eta egindako denbora:

22 Pello Berrizbeitia	1h07'54"	5594 Jorge Rubio Garcia	1h36'35"
196 Juan Zublaurre	1h13'49"	5713 Gorka Apraiz	1h36'50"
270 Jon Astigarraga	1h15'10"	5843 Egoitz Plaza	1h37'08"
527 Eneko Laskurain	1h18'11"	6192 Juan Solozabal	1h37'56"
530 Eneko Azurmendi	1h18'14"	6659 Mikel Astigarraga	1h38'51"
538 Mikel Arriola	1h18'17"	7092 Asier Arana	1h41'18"
680 Jorge Rubio Ortega	1h19'23"	8204 Idoia Urriuela	1h41'55"
699 Javier Murcia	1h19'31"	8625 Ibon Martin	1h42'42"
792 Xabier Arrieta	1h20'05"	8653 Marina Kruzelaegi	1h42'46"
796 Mikel Iriondo	1h20'10"	8841 Txomin Aizpurua	1h43'10"
999 Aitor Fernandez	1h21'37"	9120 Mikel Vilores	1h43'42"
1403 Oihane Sarasketa	1h23'57"	9140 Jon Lopez	1h43'45"
1621 Ander Ballona	1h25'06"	9269 Javier Perez	1h44'00"
1806 Aitziber Urkiola	1h25'57"	9763 Jaime Mendiguren	1h44'53"
2007 Aitor Oiarzabal	1h26'49"	9865 Ivan Agote	1h45'07"
2146 Ibai Alonso	1h27'24"	9898 Juan Luis Azkune	1h45'15"
2256 Kepa Osoro	1h27'45"	10452 Manu Gorospe	1h46'23"
2272 Enrique Saigado	1h27'48"	11983 Sonia Dominguez	1h48'30"
2451 Liber Prieto	1h28'20"	11994 Andoni Mayo	1h49'32"
2518 Isabel Etxaniz	1h28'30"	12309 Humberto Sarasua	1h50'09"
2583 Fidel Gonzalek	1h28'40"	12379 Sandra Maria	1h50'19"
2619 Ander Quintas	1h28'44"	12383 Carmen Artamendi	1h50'19"
2620 Gorka Larrañaga	1h28'44"	12668 Idoia Izagire	1h50'57"
2807 Eduardo Alvarez	1h29'18"	12860 Itsasno Landaburu	1h51'22"
2928 Eduardo Kapelastegi	1h29'37"	13007 Ignacio Gisasola	1h51'42"
3156 Mikel Osoro	1h30'17"	13019 Jon Garcia	1h51'44"
3282 Oscar Santiago	1h30'38"	13289 Naiara Cid	1h52'19"
3383 Gorka San Martin	1h30'59"	13301 Asier Rodriguez	1h52'20"
3390 Asier Paredes	1h31'00"	13639 Unai Azplazu	1h53'05"
3405 David Flaño	1h31'02"	13658 Iñaki Errasti	1h53'07"
3434 Jose Etxaniz	1h31'07"	14980 Iker Lasuen	1h56'09"
3561 Maialen Zubizarreta	1h31'32"	15687 Carlos Balseiro	1h58'06"
3588 Miron Gallastegi	1h31'38"	17086 Jara Larroategi	2h03'12"
3636 Unai Oxandiano	1h31'46"	17233 Maialen Igartua	2h03'53"
3797 Felipe Sanchez	1h32'12"	17756 Iñigo Larrañaga	2h06'42"
3859 Jorge Ibañez	1h32'23"	17814 Josean Alberdi	2h07'00"
3893 Eduardo Uribe	1h32'29"	17818 Irune Alberdi	2h07'00"
3951 Ivan Makarenko	1h32'38"	18357 Ekhi Zubillaga	2h10'34"
4136 Naia Saiz	1h33'06"	18359 Naiara Uriarte	2h10'35"
4324 Ion Zubiate	1h33'38"	18486 Itziar Alberdi	2h11'23"
4481 Daniel Mounenza	1h34'00"	18828 Erika Romero	2h15'16"
4657 Mikel Gosalaga	1h34'23"	18829 Juan Manuel Lopez	2h15'17"
4686 Gorka Gallastegi	1h34'28"	18831 M ^a Dolores Vilanova	2h15'18"
4942 Josu Torrealday	1h35'04"	18832 Ruben Lopez	2h15'18"
4998 Ander Maria	1h35'13"	18871 Roberto Gallego	2h15'54"
5056 Martin Irigoin	1h35'19"	18874 Oier Cobo	2h15'56"
5122 Borja Sarasketa	1h35'28"	18875 Alexander Telleria	2h15'56"
5561 Esther Velasco	1h36'31"	19518 Leire Lopez	2h46'07"



Eibar FT zazpigarren postu bikainean Genuine Ligan

>>> Aurreko asteburuan Tarraconan jokatu-tako 2019-20 denboraldiari zegokion azken jardunaldian eibartarrekikaragarrizko lana egin dute eta parte hartu duten hiru neurketetetan atera dira garaile: Athletic-i 1-3 eta Lugori 0-2 irabazi zieten zapatuan eta Huescari 3-1 do-

mekan. Covid-19ak hala behar-tuta geratu zen bertan behera aipatu-tako liga hori eta, azke-nean, amaitu ahal izan dute. Eibartarrak 7. postu bikainean sailkatu badira, adiskidetasun multzoan Cordoba izan da naga-si eta kiroltasunarenean Rayo Vallecano.



Urbateko waterpolista gazteenak ere ofizioa ikasten

>>> Aurreko asteburuan Urbateko waterpolokoekin harrobiko taldeen ordua izan zen eta ondo baino hobeto erantzun zuten gazteenekigerilekuan. Horrela, haurren Euskal Herriko ligan Urbateko urkotronik talde mistoak 10-0 irabazi zion nesken Larrainari, "estreinaldian faboritoen artean izango dela erakutsita". Eskola Ligako alebinen mailan, bestalde, Urbateko urkotronik-ek

1-3 galdu zuten nesken Larrainarekin eta 1-2 mutilenarekin: "2010 eta 2011n jaiotakoekin 2009an jaiotakoekin aurka jokatu arren", Orbeakoek ez zieten aurpegirik galdu partiduei, "etorkizunari begira esperientzia pilatuz joatearekin batera". Azkenik, senior mailako gizonetzkoen bigarren taldeak Getxoko bigarrenari 1-7 irabazi zion "oso partidu serioa egin".

Asola Berriko Sergio Rodriguez garaile Azpeitian jokaturako Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketaren azken jardunaldian



Aitziber Olaizola txapelduna.

>>> Hala ere, Aitziber Olaizola bolari elgoibartarrak irabazi zuen txapelketa, Oier Azurmendi markinarraren eta Bit-tor Rodriguez eibartarraren aurretik sailkatuta. Aurreneko biek 21 txirlorekin berdinduta amaitu zuten lehiaketa, eta txirlo bat gutxiagorekin geratu zen Asola Berriko ordezkaria. Euskal Herriko txapela jokoa egonda, lehia izan zen nagusi azken jaurtialdi horretan eta, horrela, 9 txirlora berdinduta geratu ziren lehen bost sailkatuak, azkenean Asola Berriko Sergio eta Garikoitz Rodriguezek lehenengoko bi postuak eskuratzeko. Azken emaitzak

kontuan hartuta, Gipuzkoako bolari onena izan da Olaizola eta Bizkaiko onena, bestalde, Azurmendi.

Bihar Ziortza-Bolibarko Iru-zubietan dagoen bolatokian jokaturako den Lehendakari Sariak emango dio jarraipena, ohikoa denez, Euskal Herriko Txapelketari. Hor lehenengoko 64 sailkatuek hartuko dute parte eta, kanporaketa formatuari jarraituz (lehenengoa azkenaren kontra, bigarrena azken aurrekoaren kontra eta horrela) garaile bakarria geratu arte jardungo dute. Hiru sari egongo dira: 300 euro eta txapela irabazlearentzat, 200 euro



Gure herriko Asola Berrikoek mai-la onean jardun dute txapelketan.

eramango ditu bigarrenak eta 100 euroko saria lortuko du hirugarren geratzen den bolariak. Egun handiaren bezperan daude, beraz, hiru-txirloko zaletuenak.

16 laguneko taldea bildu zen Aketegiko Mariren kobara egiteko zuten ibilaldian

>>> Deportiboko mendi-batzordekoek euren egutegiko Arantzazun hasi eta amaitzen zen ibilaldia burutu zuten aurreko asteburuan, horrela orain dela bi urtetatik egiteko zuten proiektua osatuz. Guztira 16 laguneko taldea elkartu zen Durutik Aketegira (1.551 metro) igo eta, Burdinkurutzeko lepotik pasatuta, Iturrigorritik berriro Arantzazura eramana-

go zuten bidea egiteko. Eguraldi goibela egokitu zitzairen eta Aketegi tontorrean taldea bitan banatu zen: han batzuk aurrerantz jarraitu zuten mendi ibilaldiarekin eta beste batzuk Aketegiko Mariren kobara jaitsi ziren. "Zorua oso labankor zegoen eta kontu handiz zeharkatu behar izan genuen kobarantz doan bidexka; kope-targiak piztu eta ordubetez ba-



rrukaldean ibili ginen kobaren txoko ezberdinak mirestuz". Handik Aizkorriko tontorra gainditu eta, beheranzkoan Ol-

tzako txabolak gurutzatu eta basoan barrena, Arantzazura bueltatu ziren "udazken koloreez gozatuz".



Jugger makro-entrenamendua

>>> Bihar izango da makro-entrenamendu hori, goizeko 11:00etan hasita, Gasteizeko Olarizu parkean. 15 urtetik go-

rakoentzat prestatutako ekitaldian nukleo askoren parte-hartzea izango da, guztiena ere saiorako prestatuak.

Txomin Osoro bederatzigarren estatuko Duatloi Txapelketan

>>> Eibar Triatloi Taldeko kirolariak estatuko atleta onenen artean lehiatu zuen Distantzia Erdiko modalitatean eta, bizikletaren gainean partzialik hoberenetakoa eginez, helmugan hamar onenen artean izan genuen. Txomin Osorok 3:20:33ko denbora egin zuen. Sorian aurreko zapatuan jo-

katutako txapelketa horretan izan zen baita Jon Illarramendi taldekidea ere, azken hori Distantzia Estandarreko modalitatean, eta lortutako 2:21:24 denborak bere adin-taldeko laugarren izateko balio izan zion. Sasoi onean jarraitzen dute Jaz Triatloi Taldekoek denboraldi amaiera honetan.



Etxea eraldatu, espazio pertsonalak eraiki, bizitza erraztu, lehentasunak argitu... KOKORO tailerra eskainiko du Sara Etxebeste datorren astean Eibarren.

<<< SARA ETXEBESTE • KonMari Aholkulari Agiriduna >>>

“Etxeak edo espazio pertsonalak antolatzeko modu bat baino gehiago da KonMari metodoa”

KOKORO tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak azaroaren 24rako, eguaztena. Sara Etxebeste (1986, Orereta) KonMari Aholkulari Agiridunaren eskutik murgilduko gara metodo horren oinarrietan. KonMari, labur esanda, etxeko espazioak antolatzeko edo ordenatzeko metodoa da, baina Sararen berbetan hori baino askoz gehiago da. Elkarteak Urkizun duen lekuan izango da tailerra 18:00etatik 20:00etara.

Marie Kondo japoniarraren antolaketa-metodologia Euskal Herriratu duzu. Nola izan zenuen horren berri eta zergatik egin duzu horren aldeko apostua?

Ia kasualitatez deskubritu nuen. Marie Kondok atera zuen lehenengo liburua irakurri zuen lagun batek, eta segituan gomendatu zidan, "liburu hau zuretzat da" esanez.

Momentu hartan Italian bizi nintzen eta ez nion kasu handirik egin. Urtebete kanpoan bizi eta gero herrira bueltatu nintzenezan zerotik hasia bezala izan zen. Orduan hasi nintzen liburua irakurtzen eta guztiz engantxatu ninduen, besteak beste nik betidanik izan dudana interes batekin egiten zuelako bat. Ordenatzea jolas bat izan da niretzat txikitatik: lagu-

nei armairua ordenatzen nien eta mailetak egiten laguntzeko deitzen zidaten. Askok gustatzen zitzaidalako egiten nuen. Garai hartan zaletasun hori lanbidea izan zitekeenik pentsaezina zen. Orain, aldiz, gero eta ohikoagoa da etxeak edo espazioak ordenatzeko enkarguak edukitzea. Euskal Herrian oraindik nahiko arrotza da, baina badoa pixkanaka bere bidea egiten.

Zertan oinarritzen da KonMari metodoa?

Etxeak edo espazio pertsonalak antolatzeko modu bat da. Hala ere, nire iritziz, askoz ere gehiago da. Zure burua ezagutzeko eta zure buruarekin konektatzeko modua ere bada. Inguruan dituzun objektu guztiak berrikusten dituzunean, aukeraketa bat egiten duzunean eta toki kon-

kretu bat bilatzen diezunean, nahi gabe zure bizitza guztia ari zara berrikusten. Zer den garrantzitsua eta zer ez den erabakitzen duzu, zer utzi dezakezun atzean, zer bukatu den... Niretzat zati interesgarriena edo sakonena hori da, aukera bat dela zure balioekin, ametsekin eta desioekin konektatzeko. Gauza asko mugitzen dira itxuraz superfiziala den zerbaiten atzean.

Askotan zaila egiten zaigu ordenatzea, eta modu negatiboan ikusten dugun jarduera da. Zertan lagundu ahal digu, zentzu honetan, KonMari metodoak?

Egia da batzuetan frustrantea iruditzen zaigula eta hori gertatzen da ez daukagulako estrategia edo metodo bat gauzak modu efektiboan egiteko. Iruditzen zaigu inoiz amaitzen ez den lana dela eta etxea beti erdizka dagoela. Zentzu apur batekin ez baduzu egiten gogorra izan daiteke, egia esan. Oso zehatza den egitura bat proposatzen du, malgua izan arren. Ohitura batzuk hartzea oso garrantzitsua da, haiek saihestu egingo dutelako ordenatzeko eginkizuna lan gogorra izatea.



“Marie Kondok bost kategorია bereizten ditu jarraitu beharreko estrategian”

Zeintzuk izango lirateke estrategia horiek?

Batetik, planteatu egin behar dugu bizitzan behin behintzat ordena-prozesu sakon bat egin behar dugula: hasieratik bukaeraraino lanketa bat egin behar du, eta modu horretan lortuko dugu lehen aipatu ditugun ohitura horiek barneratzea. Bestetik, Mari Kondok gelaka egin beharrean kategoriari ordenatu behar dela aholkatzen du, hau da, materialen

arabera. Berak bost kategoría bereizten ditu: arropa, liburuak, dokumentuak eta "komono" deitzen duena (aurreko kategorietan sartzen ez den guztia: sukaldeko tresneria, komuneko produktuak, dirua, mugikorrak...). Azken kategorian objektu sentimentalak sartzen dira. Bost kategoría horietan banatzen da daukagun guztia. Gelaka egiten dugunean gertatzen da gela batekin amaitzen dugunean beste gela bat

desordenatuta dagoela, sarritan objektuak errepikatuta ditugulako. Kategoriak egiten denean, berriz, ikusten dugu zer daukagun eta zenbat daukagun gauza bakoitzetik, hau da, zenbat liburu daukagu etxe guztian? Ikuspegi osoagoa hartzen dugu eta ondorioz, egiten den garbiketa askoz ere sakonagoa da.

Sentimenduekin zerikusi handia du metodoak, ezta?

Metodoak daukan berezitasun bat zoriontsu egiten dizun hori aukeratzen duzula da, eta nire ustez hor dago gako. Ez da hainbeste zentratzen botatzean (metodo minimalistak egiten duen bezala); ostera, garrantzitsuena da nola sentiarazten zaituen. Hor ere txip aldaketa bat dago. Normalean oso erraz dakigu esaten zer ez zaigun gustatzen edo zerk ez gaituen betetzen, baina, aitzitik, ez da hain erraza nahi dugun horretan eta pozten gaituen horretan benetan fokoa jartzea. Uste duguna baino sakonagoa da. KonMari metodoa ez da bakarrik kamisetak doblatzen ikastea. Hori bada baina, hortaz aparte, asko dago atzetik, beti ere norberak nahi duen neurrian, jakina.

SUSTRAI COLINA



AGIN LABURU



San Andres BERTSO JAIALDIA

azaroak **25** eguena
COLISEOAN, 18:30ean

GAI-JARZAILER: JON MIKEL MUJICA

Sarrerak (6€) egunean bertan salduko dira Coliseoko leihatilan 17:30etik aurrera

AMETS ARZALLUS



NEREA ELUSTONDO



<<< MIKEL GARAIZABAL
ENOLOGOA >>>

“Euskal gazta eta ardoak zelan ezkontzen diren dastatuko dugu”

Mikel Garaizabal Sommelier, Ostalaritza, Turismoa, Enologia eta Bitikultura titulatuak, 1996tik ardoaren munduan jardun du, bi milatik gora kata, ikastaro eta hitzaldi eskainita mundu osoan. Abenduaren 2an, arratsaldeko 19:00etatik 20:30ak arte, ...eta kitto!-ko Berbetan-eko berbalagunei zuzendutako dastaketa-maridaje saioa eskainiko du Arrate Kultur Elkartearen.

Ardoa eta gazta protagonista izango diren dastaketa-maridaje horretan, zein produktu erabiliko dituzu, zein ardo mota, zein gazta?

Ibilbidea Getariko Txakolinarekin hasiko dugu, gero Bizkai-koarekin jarraitzeko eta, ondoren, Arabakoarekin. Jarraian Arabar Errioxako bi ardoren tartea izango da eta, amaitzeko, Euskal Sagardoa izango dugu. Maridaje horretako beste ezkontidea gazta izango da. Bada urtebete Euskal Gazta sortu zela, euskal esnearekin egindako sei gaztak osatzen dutena. Eusko Labeleko ezaugarria duten sei horietatik hiru izango ditugu Eibarko saioan: hasteko, ahuntzaren esnearekin egindako Ahuntzai gazta; jarraian ardi eta behiaren esneak nahastutako Saroirekin jardungo dugu; eta, amaitzeko, Latxa Urdina izango dugu, ize-nak berak dioenez ardiarena eta urdin kolorekoa dena.

Parte hartuko duen jendeak zer ikasi dezake?

Ordu eta erdiko saioa izango da. Parte-hartzaileak dastaketa-teknikak zer diren ikasiko du, bertoko produktuak baloratzeko asmatzearekin batera.

Berezkoa dugun jakinminari ere tartea eskainiko dio ekitaldiak. Kontsumitzaileak hezitzea da gure helburua eta, horregatik, saioa ez da profesionalentzat, amaierako kontsumitzaileari laguntzea da bilatzen duguna.

Bertan parte hartzeko zer da behar-beharrezkoa? Bi produktu horien zale amorratua izan behar da derrigorrez?

Esanda moduan, adituaren perfil horretatik aldentzen gara gure saioan, dastaketa serio eta tekniko horretatik, eta zeozer erakargarria eta didaktikoa eskainiko dugu, zentzumenak lanean jarriko dituen esperientzia aberasgarrian.

"Larregi ez badugu ekoizten ere, Euskal Herriko produktuek kalitatea eta nortasuna dute"



Gustua, usaimena... Zentzumenen artean, zein da garrantzuen halakoetan?

Usaimena nagusitzen da, zaltza barik. Gustua izan daiteke ondorengoa eta, jarraitzeko, hor dago ukimena ere. Baina gauzak ez ditugu mugatuko zentzumen horietara, beste guztiek ere badutelako euren funtzioa horrelako gai guztietan. Ikusmena ere hor dago, bere pisua badu. Zentzumen guztiak elkar hartuta funtzionatzen dute.

Bi produktu horien arteko maridajeak zer du berezitat? Bestelako maridajeekin parekatuz, zer azpimarratuko zenuke?

Maridaje edo ezkontze guztiak dute berea. Ni nahiko kritikoa naiz, gainera, horrelako sailkapenekin. Harmonia aurkitzea da garrantzitsua, eta hor subjektibitateak indar handia hartzen du. Gauza asko izan behar dira kontuan: noiz egiten dugun, urteko zein sasoi, ez da gauza bera udan edo neguan egitea; non zauden ere, horrek badu bere zeresana, Araban edo Getarian izan desberdina da. Eta zelan sukaldatzen den, zeinen konpainian zauden... Uz-tarketa guzti horrek joko asko eman dezake.

Maridaje horietan badira hobe ezkontzen diren produktuak? Edo bakoitzaren gustuaren arabera da azken emaitza?

Ulertu behar duguna da bakoitzaren gustua dela garrantzitsua. Dastatze-teknikak erakutsi ahala, jendea jabetzen doa horretaz, dastatzea hori delako, besterik da jatea. Jabetu behar gara, dena dela, hemen ditugun kriston produktuez, Euskal Herria oso aberatsa delako produktu desberdinetan. Ez dugu askorik ekoizten, hori egia da, baina kalitateari eta nortasunari dagokienez goi mailan gaude. Eta horrek garrantzi handia du, mundu globalizatu honetan, saltzea beharrezkoa dugulako.

Zu zeu geratu barik zabiltza, ezta? Kopenhagen harrapatu zaitugu?

Ez, handik bueltatu naiz da goeneko. Gastronomian harrapatu nauzue orain, Donostian prestatu duten aste osoko ekitaldian. Zapatuan Valladolidera noa, domekan Adunan izango naiz, ezin naiz kexatu. Asturiasen ere, Oviedon egindako esperientzia oso ondo joan zitzaigun.



Niko Etxart & Hapa Hapa



Watermelon Slim



Koko-Jean & The Tonic



Izo Fitzroy

Blues Hotsak jaialdiak Soraluze doinu beltzez jantziko du

Badira hainbat urte bluesa, jazza eta horrelako doinu beltzeekiko joerak gero eta indar handiagoa hartzen joan direla gure bailarako herrietan: hor dira Debajazz jaialdia, Ibetondoko jazz jaialdia, Jazz-Blues zirkuitua... Horrelako musika argitaratzen duen diskoetxea ere sortu zuten Soraluze orain dela 25 urte, eta pandemiaren aurretik abiatutako Blues Hotsak jaialdiaren hirugarren edizioa dugu ate joka oraingoan.

Bertan musika eta irudiak tartekatuko dira, antolatutako programazioan emakumeen papera nagusitzeaz gain. Gaur hasi eta hilaren 28ra arte iraungo duen jaialdiaren kontzertuak Soraluze Herriko Antzokian izango dira, beti ere arratsaldeko 20:00etan hasita eta honako karteldegia irarrituz: hilaren 19an, barixakua, Watermelon Slim Blues Band; 20an, zapatua, Izo Fitzroy Band; 21ean, domeka, Eunice vs Mayka Edjole; 26an, barixakua,

Niko Etxart & Hapa Hapa; eta 27an, zapatua, Koko-Jean & The Tonic. Hortik aparte, hilaren 25ean, eguena, "Janis: Little girl blue" film-dokumentala eskainiko da, 21:00etan hasita; eta 28an, domeka, Musika Eskolako Konboak herriko musikarien erakustaldia izango da, eguerdiko 13:00etan hasita. Eta, behin musika giro horretan murgilduta, egun horietan Alex Rodriguez Cruz egilearen argazki-erakusketa ere izango da ikusgai.

Zuzenekoei dagokienez, bezaraz, Niko Etxart & Hapa Hapa euskaldunekin batera, Koko-Jean & The Tonic kataluniarak ditugu, Madril eta Gasteizetik datozen Eunice vs Mayka Edjole, Izo Fitzroy kantari britainiarra eta Watermelon Slim estatubatuarra. Bluesman beterano honekin hasiko da jaialdia gaur bertan. Bihar soul eta bluesean trebatutako Izo Fitzroy izango da eta etzi Nina Simoneri egingo diote tributo Eunice vs Mayka Edjolek. ■

SARREREN ZOZKETA
etakitto.eus-en



Blues Hotsak www.blueshotsak.eus SORALUZE-GIPUZKOA 2021 Azaroa 19-28 ARGAZKI ERAKUSKETA: ALEX RODRIGUEZ CRUZ	19 OSTIRALA	WATERMELON SLIM
	20 LARUNBATA	IZO FITZROY
	21 IGANDE	EUNICE vs MAYKA EDJOLE
	26 OSTIRALA	NIKO ETXART & HAPA HAPA
	25 OSTEREGUNA (11)	FILM JANIS: LITTLE GIRL BLUE
	27 LARUNBATA	KOKO-JEAN & THE TONICS
	28 IGANDE (13)	MUSIKA ESKOLAKO KONBOAK



San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleen izenak eman ditu epaimahaiak

Azaroaren 25ean, eguena, egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres jaien bueltan urtero antolatzen duen Bertso Jaialdia, eta bertan abestuko dituzte aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleek saritutako bertsoak.

Helduen mailan, lehen saria Urko Egaña azpeitiarrak eskuratu du (300 euro eta txapela) eta bigarrena Iñigo Legorburu hernaniarrak (250 euro eta plaka). 16 urtetik beherakoen artean, lehen saria Martin Santa Marinak eraman du (txapela

eta liburu bat) eta bigarrena Mara Olañetak (plaka eta liburu bat). Juan Antonio Mogel Ikastolako ikasleak dira biak.

Jaialdia Coliseoan izango da aurten ere, 18:30etik aurrera. Jon Mikel Mujika gai-jartzai-learen esanetara jardungo dute Nerea Elustondo, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Agin Laburu bertsoariak.

Sarrerak egunean bertan salduko dira, Coliseo antzokiko leihatilan, saioa hasi baino ordu bete lehenagotik, 17:30ean (6 euro).

Eibarko Musika Bandak gaur gauerdian egingo du Santa Zeziliaren omenezko serenata

Astelehena (azaroak 22) Santa Zezilia eguna dela ospatzeko, asteburuan emanaldi bereziak egingo dira. Eibarko Cielito Musika Bandak gaur gauerdian egingo du Santa Zezilia serenata, Untzagatik hasita Arikitaraino joan eta berriz Untzagara bueltatzeko. "Amanecer" diana ("Quinto levanta"), betiko habanerak, pasodobleak... joko dituzte. Eta Santa Zezilia kontzertua domekan izango da, 12:30ean Coliseoan. Andoni Vazquezek zuzenduko du eta "western" ezagunetako soinu bandako piezak eskainiko dituzte: "La muerte tenía un precio" (E.



Morricone), "Por un puñado de dólares" (E. Morricone), "El bueno, el feo y el malo" (E. Morricone), "Bailando con lobos" (J. Barry) eta "Los siete magníficos" (E. Bernstein). Kontzertua hasi baino lehen kalejira



"Stanbrook" lanak eraman du Eibarko XXII. Film Laburren Jaialdiko sari nagusia

Oscar Bernacerren "Stanbrook" izenburuko lanak jaso du Eibarko XXII. Film Laburren Jaialdiko Javier Agirresarobe sari nagusia. Film honek Gerra Zibila hasi baino egun batzuk lehenago, 1939ko martxoaren 28an Alacantetik errepublikazaleak Espainiatik itsasoz nola atera zituzten kontatzen du. Eta bigarren saria, berriz, Alberto Ruiz Rojoren "La Cinta" izenburukoak eraman zuen. Euskerazko film onenaren saria, bestalde, Paul Urkijok irabazi zuen, "Dar-dar" izenburukoarekin, eta animazioan, berriz, Ali-

cia Nuñez Puerto saritu zuten, "La primavera siempre vuelve" izeneko lanarengatik. Aipatutakoez gain, eibartarrek aurkeztutako lanen artekin onena Juanma Cano eta Jairo Berbelen "Miscere" izan zela erabaki zuen epaimahaiak.

Jaialdia antolatzen duen Plano Corto elkarteak pozik daude parte-hartzearekin, edizio honetara 170 lan aurkeztu dituzte eta. Horietatik 52 aukeratu dira aurreko astean Coliseoan erakusteko eta ia egunero 100 lagun baino gehiago joan dira proiektioetara.



Eibarko herriaren 675. urtemuga izango da gai nagusia LII. Exfibar seilu-erakusketan

Arrate Filatelia Elkarteak urtero antolatzen du seilu-erakusketan 1969. urteaz geroztik, eta aurtengoa azaroaren 28tik abenduaren 5era bitartean egongo da zabalik, Portalean (San Andres egunean itxita egongo da). Erakusketaren harira kaleratzen duten liburuxkan, gai nagusia Eibarko herriaren 675. urteurrena da

oraingoan eta Elkarteak argitaratutako zigilu berezia ere horri eskaini dio, 675. urteurrenko logotipo irabazlearen irudiarekin. Correos-en zigiluan, berriz, hiriko armariaren irudia erabili dute. Betiko lez, erakusketaren inaugurazio egunean, hilaren 28an, 11:00etatik 14:00etara posta-marka jartzeko aukera egongo da.



Martitzenean hasiko da tabernarien arteko “San Andres Saria” pintxo-lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Udalaren eta Eibarko ostalarien laguntzarekin, Eibarko XVII. Pintxo Lehiaketa “San Andres Saria” antolatu du datorren asterako, azaroaren 23 (martitzena), 24 (eguztzena) eta 25erako (eguzia). Hamasei taberna hauek eman dute izena: Baisi, Baratze, Birjiñape, Bodega Vinagre, Gure Kaiola, Ipur, Jan ta Edan, Kontent, Koskor, Kultu, Ongi Etorri, Orbela, Skape, Txoko, Hirurok eta Trinke-

te. Taberna horietako bakoitzak lehiaketarako aurkeztu duen pintxoarekin hartuko du parte, hiru egun horietan bezeroek kontsumitzeko moduan tabernan eskainita (prezioa 1,5 euro eta 2 euro artekoa izan beharko da). Epaimahaia Arrate Kultur Elkarteak izendatutako lagunek osatuko dute eta azaroaren 26an emango dituzte ezagutzera edizio honetako irabazleak eta hilaren 30ean jasoko dute saria, San Andres azokako sariak banatzeko ekitaldian.



Usartza taldekoen Santa Zezilia kontzertua domekan Errebalen

Usartza Txistulari Taldekoek domekan egingo dute Santa Zezilia kontzertua, 19:00etan Errebal Plazan. Txistulariekin batera Musika Eskolako txistu ikasleak, metal boskotea eta perkusioa arituko dira eta Kezkako dantzariak eta Jon Martinez abeslariak ere har-

tuko dute parte, honako egitarauarekin: “Santa Cecilia”, “Agurra”, “Antzineko Minuettoa”, “Ohorezko kontrapasa”, “Luzaidoko dantzak”, “Txalo polka”, “Habanera del Guria”, “El puente sobre el río Kwai”, “Negua joan da ta”, “Arrate” eta “Lizarra”.



Haurrentzako bi ikuskizun

Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialditik datorren “Kukuryku” umeendako ikuskizuna eskainiko du Poloniako Ola Muchinek bihar, 17:00etan, Coliseo antzokian, Udalak Tolosako Ekinbide Etxearen laguntzarekin antolatu duen saioan. Txotxongiloak eta magia uztartzen dituen ikuskizunean ez da berbarik egiten eta 4 urtetik gorako umeentzat pentsatuta dago. Sarrerak 5 euro balio du. Eta azaroaren 28an, berriz, “Epa txiki!” umeentzako ikuskizun musikala aurkeztuko dute Demode Quartet-ekoek, 18:00etan, Errebal Plazan. Familia osoa entretenitzeko moduko ikuskizun dibertigarri eta arina ikusteko ez da sarerarik behar, baina aforoa zaintzeko gonbidapena eskatuko dute.

Zapatuko Ipuinerako izen-ematea astelehenean hasiko da

Azaroaren 27an eskainiko du Maitte Franko ipuin kontalariak “Bizar Urdin eta beste zenbait gaiztoren hamaika ipuin” izenburuko kontakizuna, 18:00etan, Portaleko areto nagusian. Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan antolatu duten saioa 5 urtetik gorako haurrentzako da eta parte hartzeko izena eman behar da, astelehenetik barixakura bitartean. Horretarako, inprimaki bat bete ahal izango da Eibarko Udalaren webgunean, “Formularioak” azpiatalean eskuragarri dagoen eskaera orria beteta. Azaroaren 26an emango dute ezagutzera onartutako en zerrrenda.



Bertso-saio musikatua Portalean

Gaur 19:30ean hasiko da Portaleko aretoan “Ez da kasualitate” bertso saio musikatua, Eibarren Akebai eta Matraka! neska* gazte taldearen eskutik. Lankuk kudeatutako saioa Hamaika Berbaldi egitasmoaren baitan antolatu dute eta Miren Artetxe, Alaia Martin, Eli Pagola eta Nerea Ibarzabal bertsolariak arituko dira, Amaia Agirre gai-jartzaile dutela. Musikarekin laguntzen, berriz, Gari Otamendik eta Ixak Arrutik jardungo dute.



Eta urak ez zuela kolorerik zioten. PEDRO ARRIOLA



Euskararen Eguna herria zeharkatuko duen kalejirarekin ospatuko dugu

Euskararen Egunerako atzerako kontaketa hasi da. Abenduak 3 jomuga, eta gaurtik zenbatzen hasita, hogeiei egun besterik ez dira falta euskaldunok eta euskaltzaleok mimoz antolatu eta ospatu ohi dugun egunerako

Eibarko euskalgintza osatzen duten taldeak elkartzen hasita daude, eta bi asteren faltan “pare bat gauza kenduta gainerakoa lotuta dugu”, diote. Bileretan ikastetxeek, euskaltegiek, aisialdi-, dantza- eta kultura-taldeek hartzen dute parte, baina “nahi duena etor daiteke. Ateak edonorentzat daude zabalik. Aurten, esaterako, Jaixak Herrixak Herrixantzako eta Matraka eta Nalua talde feministak batu zaizkigu eta familia handitzen doala ikustea pozgarria da oso”.

Aurten ez diote aparteko goibururik jarri, nahita: “Euskararen Eguna, soil-soilik, horrela deitu diogu. Protagonismo osoa eman nahi izan diogu ospatzen dugun egunari. Izenak berak badu nahikoa indarra”. Hori bai, musikariek ez da faltako aurtengo edizioan: “Iaz, egoera ere bestelakoa zen, musika eraman genuen Eibarko auzoetara, eta horrekin batera ilusioa eta poz apur bat ere bai. Ekitaldi jendetsurik ezin zenez egin,

autoetan megafonia ipini eta bozgorailuetan euskal kantuak jarrita herriko bazter guztietara joan ginen”. Aurten, zorionez, egoera zertxobait hobea da eta “kalejiran irtengo gara. Aldats elektrotxarangak girotuko ditu bazterrak. Txaranga gaztea eta martxosoa da eta giro polita sortuko dute”.

Azitainetik Untzagaraino

Kalejira Azitainen hasi eta Untzagan amaituko da. Tartean bost geldiuene egingo dira. “Arratsaldeko 19:00etan ekingo diogu kalejirari, Azitainen, gasolindegi parean. Pare bat abesti jo eta gero, Urkizurantz abiatuko gara. Han egongo da bigarren geldiuenea. Handik, Bittor Sarasketatik igo eta Erreal plazan egingo dugu hirugarren geldiuenea. Hurrengo anbulatorioko parkean, eta Toribio Etxebarrian sartuta Depor parean egingo dugu azkeneko geldiuenea. Handik Untzagara joango gara eta elektrotxarangaren doinue-

“Hain egun seinalatuan Eibarko euskaltzaleok kaleak bete behar ditugu”

kin amaituko dugu aurtengo Euskararen Eguna”. Erreperitorio zabala ekarriko du Aldats elektrotxarangak Eibarrera. Geldiueneetan pare bat abesti joko dituzte baina ez dira ixilik joango ibilbidean; besteak beste, “Zirkorrika”, “Gora herria”, “Lokaleko leihotik”, “Xalala”, “Positive bomb”... joko dituzte, “gorputza mugiarazten duten horietakoak; eta horixe da, hain justu, nahi duguna, Euskararen Eguna martxa betean ospatzea”.

Eibartarrei parte hartzeko deia

Euskalgintzako taldeek deitzen die beste behin eibartarrei ekitaldian parte har dezaten: “Egun seinalatua da euskara maite dugunontzat eta bada-kigu Eibarren asko eta asko garelara horrela sentitzen dugunok. Horregatik eskatu nahi diegu abenduaren 3an irten daitezela kalera ozen oihukatzeraz Eibarren euskaraz bizi nahi dugula!”

Eskoletan ere ekintzak

Abenduaren 3ko goiz-eguerdi parte ume eta gazteen ekitaldiek bete ohi dute, baina bizi dugun egoera dela-eta, ez iaz eta ezta aurten ere ez da ikasleentzat ekitaldirik izango kalelean, baina, arratsaldeko kalejiran parte hartzeaz gain, eskoletan ere izango dute zer ospatu. Kalejiran abestuko diren abestiakentseatuko dituzte eta Euskararen Eguneako karteltxoak margotu eta jarriko dituzte eskoletan eta eskola inguruko auzoetan”. ■

			4	2				
8		3						
	1				6	5		
5		4		8		9	3	2
6	3	2		9		8		1
		8	3				2	
						6		8
				5	9			

C	P	C	O	S	B	O	Z	L
B	O	Z	L	C	O	B	C	
G	Z	L	C	O	B	C		
S	A	R	P	O	S	Z	C	D
B	O	P	C	Z	L	C	O	
C	O	B	L	O	B	P	Z	
P	B	S	P	C	Z	L	C	O
C	O	B	L	C	O	B	C	
B	L	C	O	B	P	Z		

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	2	9	7	9	6	2	1	6
5	6	7	2	1	6	8	2	6
8	6	2	6	2	1	6	7	7
6	9	6	2	7	9	6	7	1
4	7	5	1	6	2	9	6	7
6	9	6	2	7	9	6	7	1
2	5	6	7	9	6	2	1	6
4	7	5	1	6	2	9	6	7
6	9	6	2	7	9	6	7	1

6	2							8
				4				7
			9					5 2
	6	5			9			
8	9						4	7
			7			8	6	
4	5				6			
	8			1				
7							2	1



5	7			6				3
3				9	2	6		
		8						
	8			1	4			
			7	2	8			
		9	6				8	
					3			
	6	3	2					9
8			4				2	7

L	Z	9	C	B	P	S	I	B
B	S	B	Z	L	C	O	B	C
P	L	C	O	B	P	Z		
L	B	Z	P	C	O	B	C	
P	B	S	B	Z	L	C	O	
C	C	B	L	O	B	P	Z	
C	C	B	L	O	B	P	Z	
B	O	B	P	Z				
C	C	B	L	O	B	P	Z	
C	C	B	L	O	B	P	Z	

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	7	8	9	6	2	1	6	7
6	2	1	6	7	1	6	7	1
2	1	6	7	1	6	7	1	6
6	2	1	6	7	1	6	7	1
2	1	6	7	1	6	7	1	6
6	2	1	6	7	1	6	7	1
2	1	6	7	1	6	7	1	6
6	2	1	6	7	1	6	7	1
2	1	6	7	1	6	7	1	6

	7							9
1	8			5				
		5			6	3	8	
6	3	5		9				
			6	7	1	4		
	3	1	8			6		
				9			3	5
2							4	

Azaroak 19/25

BARIXAKUA 19

MODA DESFILEA

18:00 Moda desfilea.
Untzagako jubilatutuean.

BERTSO MUSIKATUAK

19:30 "Ez da kasualitatea"
bertso-saio musikatua.
Bertsolariak: Miren Artetxe,
Alaia Martin, Eli Pagola, Nerea
Ibarzabal. Gai-jartzailea:
Amaia Agirre. Musikariak:
Gari Otamendi, Ixak Arruti.
Portalean (areto nagusian).

SANTA ZEZILIA

00:00 Santa Zezilia serenata,
Eibarko Musika Bandaren
eskutik. Untzaga-Arikita-
Untzaga.

ZAPATUA 20

BAKAILAO LEHIAKETA

10:00 XVII. Eskolarteko
Bakailao Lehiaketa. Errebal
Plazan.

SHOW COOKING FINALA

12:00 Bacalaos Alkorta Pintxo
Txapelketako irabazleen
partaidetzarekin. Errebal
Plazan.

INAUGURAZIOA

13:00 Einer Rodriguez
argazkilaria "Eibar:
lehen eta orain" erakusketa.
Untzagako jubilatutuean.

ANTZERKIA

17:00 "Kukuryku" (Ola Mucin,
Polonia) umeendako magia
eta txotxongiloak. 5 euro.
Coliseoan.

HERRI LASTERKETA

17:00 VIII. Asier Cuevas herri
lasterketa. Irteera eta helmuga
Toribio Etxebarrian.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urteko haur
eta familientzat. Ipuru
kiroldegian.

ZAPATU POETIKOAK

18:00 Julio Gonzalez: "Ruido de
Angeles". Itzamna akademian.

DOMEKA 21

SANTA ZEZILIA

12:30 Santa Zezilia kontzertua
eta kalejira, Eibarko Musika
Bandaren eskutik. Coliseoan.

BISITA GIDATUA

17:00 Erakusketa iraunkorra
ezagutzeko bisita gidatua,
euskeraz. Armagintzaren
Museoan.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinatzeko
aukera. Ipuru kiroldegian.

SANTA ZEZILIA

19:00 Santa Zezilia kontzertua,
Usartza txistulari taldearen
eskutik. Errebal Plazan.



ASTELEHENA 22

BIDEO-FORUMA

18:30 Emakumeen Historiak:
"Geishas". Dinamizatzailea:
Patricia Perex Coto. Portalean
(areto nagusian).

MARTITZENA 23

XVII. PINTXO LEHIAKETA

Eibarko tabernarien arteko
"San Andres Saria". Izena eman
duten tabernetan.

AUZOKO BILERA

19:00 Urkiko auzotarrekin
bilera. Auzoko elizan.

GURASOAK MARTXAN

19:00 Sare sozialen erabilera
egokiak sustatzea, arrisku
egoerak murrizteko" hitzaldia.
Portalean.

EGUAZTENA 24

XVII. PINTXO LEHIAKETA

Eibarko tabernarien arteko
"San Andres Saria". Izena eman
duten tabernetan.

ODOL EMATEA

16:50/20:30 Odol-emaileentzat
saioa. Hitzordua eskatzeko:
943007884 telefonora deitu.
Untzagako jubilatutuean.

TAILERRA

18:00/20:00 KonMari tailerra.
...eta kitto! Euskara Elkarte
(Urkizu, 11 solairuartera).

BATZAR IREKIA

19:00 Debabarreneko Stop
Desahucios-en batzar irekia.
Portalean.

EGUENA 25

NAZIOARTEKO EGUNA

11:00 Indarkeria sexisten aurka
matazako. Genero-indarkeriaren
aurka kontzientziatzeko
proiektu kolektibo
artistikoa. 20:00 Herritarren
kontzentrazioa. Untzagan.

BERTSO JAIALDIA

18:30 San Andres Bertso
Paper lehiaketaren irabazleei
sariak eta bertso jaialdia.
Bertsolariak: Elustondo,
Arzallus, Colina eta Laburu.
Gai-jartzailea: Jon Mikel
Mujika. 6 euro. Coliseoan.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 21era arte:

– EUSKAL AKUARELARIEN

ELKARTEA (Portalea)

– INDALECIO OJANGUREN

XXXIV. ARGAZKI LEHIAKETA

(Portalea)

– "KOMUNIKATU SALTZEKO"

(Armagintzaren Museoan)

Azaroaren 30era arte:

– DEPORREKO ARGAZKI

TALDEA (Klub Deportiboa)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

ANTZERKIA

19an (barixakua) / 20:30

ERMUA Antzokia

"Losers" antzezlan,
Aitziber Garmendia
eta Jon Plazaolarekin.
Sarrera: 10 euro.



ELGOIBARREN

LASTERKETA

20an (zapatua) / 11:00etan

Plazatik

Karateko igoera. Morkaiko
Mendizale Elkarteak
antolatuta.



SORALUZEN

ARGAZKILARITZA

21ean (domeka) / 08:30

Herrian zehar

Soraluzeko Argazki Rallyaren
32. edizioa. Kontrargi Argazki
Kolektiboak antolatuta.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Francisco Cardeu Sola.** 77 urte. 2021-11-9.
- **Serafin Novoa Abadia.** 87 urte. 2021-11-9.
- **Asuncion Ferreras de Luis.** 93 urte. 2021-11-10.
- **Iñaki Aierbe Zabaleta.** 70 urte. 2021-11-10.
- **Maria Angeles Cabo Formoso.** 81 urte. 2021-11-10.
- **Marisol Artamendi Errasti.** 84 urte. 2021-11-15.
- **Josune Irigoien Quintana.** 88 urte. 2021-11-15.
- **Rufino Villacorta Perez.** 84 urte. 2021-11-16.
- **Jose Fernandez Perez.** 91 urte. 2021-11-16.

Jaiotakoak

- **Urko Riaño Zabala.** 2021-11-6.
- **Ahmar Mohammad Khan.** 2021-11-9.
- **Fatima Elmezouary Ben Amar.** 2021-11-10.
- **Paule Tola Muela.** 2021-11-14.

Farmaziak

BARIXAKUA 19

EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

ZAPATUA 20

EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

DOMEKA 21

EGUNEZ | **Morgado** (San Agustin, 3)

ASTELEHENA 22

EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

MARTITZENA 23

EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

EGUAZTENA 24

EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

EGUENA 25

EGUNEZ | **Lekunberri** (Isasi, 31)

BARIXAKUA 26

EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2021ean,
Izpizua (Ibarkurutze, 7)

• **tartak**
• **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

#EibarrenBadakagu

eta
kitto!
Eibarren Badakagu

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobe eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



MARTIN-ek 2 urtetxo bete zittuan atzo. Zorionak eta patxo potolua famelixa guztiaren partez. Segi bihurri, alai eta jator! Paaaaaaaaaaaaa.



Zorionak, **AMETS**, martitzenian 4 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat etxeko guztion partez. Asko maite zaittugu, egunero iribarria etaratzen deskuzu-eta.



Ongietorri, **OIER**, hillaren 6ttik gure artian zagoz-eta. Musu pottolo bat famelixaren eta, bereziki, zure anaixa **ENEKO**ren partez. Txintxo portatu!!!

ek!

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **20an:** 19:45, 22:30
- **21ean:** 20:00
- **22an:** 20:30

“Way down”

Zuzendaria: Jaime Balagueró



2 ARETOA

- **20an:** 19:45, 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 20:30

“Spencer”

Zuzendaria: Pablo Larraín



ANTZOKIA

- **20an:** 17:00 (1 Aretoa), 19:45, 22:30
- **21ean:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **22an:** 20:30

“Pan de limón con semillas”

Zuzendaria: Benito Zambrano



ANTZOKIA

- **13an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **14an:** 17:00

“Dos colegas y la bestia”

Zuzendaria: Rune Spaans



Iragarki laburrak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta komun. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera umeak eskolan jasotzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602353585.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 640760403.
- Emakumea eskaintzen da etxe eta bulegoetan garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (tituluarekin). 10 urteko esperientzia. Tel. 603514085.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel. 722630678.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduetegi zabala. Autoarekin. Erreferentziak. Tel. 689571882.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Esperientzia. Tel. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, eta umeak edo nagusiak (ziurtagiriarekin) zaintzeko. Autoarekin. Tel. 612223075.

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Orduka. Tel. 654210024.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 643584198.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 679946934.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxebizitzetan, tabernetan... Tel. 631395471.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 688627689.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 667060292.

6.2. Langile bila

- Estetizista behar da Eibarko ilea-paindegi baterako. Esperientziarekin. Lan giro bikaina. Tel. 943208125 eta 678674250.
- Modeloa behar da (mutila/neska) Giza Irudiaren marrazki klaseetarako. Tel. 622053933. Maita.
- Ilepaindegirako ofiziala behar da Elgoibarko ilea-paindegi batean. Jor-nada osorako. Berehala hasteko. Tel. 943246225.
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Curriculumuma bidali: eibarharategia@gmail.com
- Komertzial munduan lanean hasteko pertsonen bila gabiltza Eibarko asaguru bulego baten. Tel. 649780971.
- Kamarera euskalduna behar da Eibar erdialdeko taberna batean. Tel. 686937385.
- Modeloa behar da (mutila/neska) Giza Irudiaren marrazki klaseetarako. Tel. 622053933. Maita.
- Estetizista behar da amatasun baxa bat betetzeko. Tel. 605770226.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergo laguntza klaseak ematen dira. Talde txikiak. Tel. 678937827. Patricia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Logelarako zuri koloreko bi armairu salgai. Ia berriak. Tel. 671258740.

6.2. Langile bila

- Seta M tamainako biniopreno, C-skins markakoak salgai. 619673058. Gorka.
- 20 kaxa White detergente salgai, elikagaien industriarako eta osasun arloetarako egokia den detergente profesionala, edozein motatako orbanak kentzeko bikaina. 619673058. Gorka.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Zure bizitza berria Errebal plazan alokairu baten prezioan



Hilean **624€*** - tik aurrera bakarrik

Gimnasioa | Sukalde hornituak | Atikoak terrazekin

Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

* Merkatuko baliz berriko prezioan aintziritutako itakurua 30 urterako interes aldakortasun hipoteka baliagarria. Gero 1,10 + BEZ oren hasierako ordainketa kontatzen da.

900 11 00 22 • neinorhomes.com



• BILKATZAILERIA •

LASTER

GIDA
2022

AUKERARIK
ONENA
Zure **enpresa**,
komertzio edo
zerbitzua
erakusteko



ek!

publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76 - 688 62 15 35

#EibarrenBadakagu



bista eder

clinica dental · hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko
dugu irribarrea.



bista eder

clinica dental · hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

www.bistaeder.es



bistaeder_clinicadental

